

**HIZKUNTZ    NORMALKUNTZARAKO**

**EKINBIDEAK**

**UDALERRI    MAILAN**

---

**PLANIFIKAZIORAKO ORIENTABIDEAK**

---

© U.E.U.ko Soziolinguistika Saila  
General Concha 25, 6. 48010 BILBO

I.S.B.N.: 84-86967-33-3  
Lege gordailua: BI-1570-91

Inprimategia: BOAN S.A.  
Padre Larramendi, 2-Bajo 48012 BILBO  
Azalaren diseinua: Julio Pardo

## AURKIBIDEA

<b>AURKIBIDEA</b>	.....	<b>5</b>
<b>I. SARRERA</b>	.....	<b>9</b>
<b>II. ERAKUNDE PUBLIKO ETA ERAKUNDE HERRITARREN ARTEKO ELKARLANA HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOAN</b>	.....	<b>15</b>
1.- <i>Zenbait kontzeptu argitu beharreko</i>	.....	<b>18</b>
2.- <i>Hizkuntz normalkuntza eta herri-dinamika</i>	.....	<b>19</b>
3.- <i>Hizkuntz plangintzaren agenteak</i>	.....	<b>20</b>
4.- <i>Erakunde herritarren plataforma</i>	.....	<b>22</b>
5.- <i>Herri-erakundeen funtzioak</i>	.....	<b>24</b>
6.- <i>Erakunde publikoen eta erakunde herritarren arteko harreman dialektikoak</i>	.....	<b>26</b>
7.- <i>EKB eta erakunde publikoak</i>	.....	<b>28</b>
<b>III. EUSKARAREN EGOERA ETA IRTENBIDEAK</b>	.....	<b>31</b>
1.- <i>Euskara gaur egun</i>	.....	<b>33</b>
2.- <i>Eragile nagusiak</i>	.....	<b>36</b>
3.- <i>Urrats kualitatiboaren beharra</i>	.....	<b>37</b>
<b>IV.- LEHENENGO URRATSA: HIZKUNTZ KOMUNITATEAREN KONPAKTAZIOA</b>	.....	<b>39</b>
1.- <i>Hizkuntzaren eskubide naturalak</i>	.....	<b>41</b>
2.- <i>Hizkuntzaren barneratze bideak</i>	.....	<b>43</b>
a.- <i>Ikaskuntza naturala (primarioa): «A» prozesua</i>	.....	<b>43</b>
b.- <i>Ikaskuntza kulturala (sekundarioa): «B» prozesua</i>	.....	<b>43</b>

3.- <b>Hizkuntz komunitatea</b>	46
Talde soziolinguistikoak	46
a.- Edozein hizkuntz komunitateri dagokionez	46
b.- Euskal hizkuntz komunitateari dagokionez	47
4.- <b>Haustura puntua</b>	48
<b>V.- BIGARREN URRATSA: HIZKUNTZ</b>	
<b>NORMALKUNTZAREN PLANIFIKAZIOA</b>	51
1.- <b>Hizkuntz planifikazioa</b>	53
Planifikazio mailak	54
2.- <b>Hizkuntzaren gizarte-funtzioak</b>	56
Hizkuntz funtzioen eragina giza-multzo ezberdinengan	63
3.- <b>Eremuen definizioa</b>	65
Eremu territorialaren banaketa	65
Eremu sozioalaren banaketa	66
Eragipen-eremuak	67
Beste faktoreak	67
4.- <b>Lehenengo tipologia: Herri erabat euskaldunak</b>	69
Lehentasunak	69
5.- <b>Bigarren tipologia: Herri euskaldunak</b>	74
Lehentasunak	74
6.- <b>Hirugarren/Laugarren tipologia: Hiriburuak eta herri erdaldunduak</b>	78
Lehentasunak	79
7.- <b>Bostgarren tipologia: Herri erabat Erdaldunduak</b>	83
Lehentasunak	84
8.- <b>Planifikaziorako metodologia eta urratsak</b>	87
Lehen pausua: Gune eragilearen sorketa	87
Bigarren pausua: Datu orokorren bilketa	88
Hirugarren pausua: Lehentasunen zehaztapena	89
Laugarren pausua: Programaketaren osaketa	92
Bostgarren pausua: Urteko "planning"a	95

<b>9.- Programaketa adibide bat</b>	.....	<b>99</b>
<i>Lehen pausua: Gune eragilearen sorrera</i>	.....	<b>99</b>
<i>Bigarren pausua: Datu orokorren bilketa</i>	.....	<b>99</b>
<i>Hirugarren pausua: Lehentasunen zehaztapena</i>	.....	<b>101</b>
<i>Laugarren pausua: Programaketaren osaketa</i>	.....	<b>102</b>
<b>VI.- ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAZ</b>	.....	<b>121</b>
<b>1.- Zarautzko ihardunaldiak eta zenbait ondorio</b>	.....	<b>123</b>

**I.**  
**SARRERA**



«Hizkuntz Normalkuntzarako Ekinbideak Udalerri Mailan - Planifikaziorako Orientabideak» izenburu luzea duen liburu honekin nagusiki helburu bat bete nahi izan du EKBk: Herri mailako euskararen normalkuntzarako herri-ekimenak indartu eta euskalgintza lan hauetan ari diren taldeei zein pertsoneri bere iharduera sistematizatzeko eta etekin hobekoak ateratzeko lagungarri izan daitekeen zenbait orientabide eskaintzea.

Bere betiko izate-arrazoiei eta helburu nagusiei eutsiz, EKBk, kultura eta euskararen sustapen eta normalkuntza lanetan ari diren talde/erakundeek osaturiko plataforma honek, herri-mugimendua indartzen ahaleginetan darrai: inizatibak koordinatuz, zerbitzuak antolatuz, esperientziak bilduz, jakinduria zabalduz, tresna metodologikoak sortuz eta eskainiz.

Borondate-on hutsarekin ezer gutxi egin dezakegulako, abiatu bai, baina berehala motz eta erren gelditzeko, zeren eta gogoak eduki arren, eta eduki baditugu, zer egin ez dakigula gelditzen bait gara. Euskararen inguruan gogo izugarri bildu izan da, betidanik. Euskara, ezinbestez, zaindua, preziatua, gozatua, maitatua izan da, eta da. Arnasa bezain preziatua eta arnasa falta zaigunean hau desiatua den bezain antsiatua.

Euskararik gabe ez bait dago Euskal Herririk, Euskararik gabe ez bait dago euskaldunik, Euskararik gabe ez bait gara gu geu jadanik gehiago izango.

Baina, alanbre edo burni batek lepo inguruan estaturik arnasa kentzen digunean, esku artean aliketa edo bestelako TRESNARIK ez badugu hori mozteko gure bizi-gogoak bakarrik alferrikakoa gertatuko den bezala (azkenean arnasa galdu egingo bait dugu) Euskarak ere, biziko bada, gure gogoaz gain TRESNAk ere behar ditu.

Ez dira aski egiten diren lan guztiak, zeren eta, zoritxarrez, askotan indarrak alferrik galtzen dira lan horietan. Tresna metodologikoak behar ditugu, herrietan euskalgintzan ari garenek behar dugu lana ahalik ondoen egiten ikasi: zer, zergatik, zein asmorekin, nola, noiz,... Horretan ari den herri-ekimenak jakinduria baten jabe, tresna batzuren jabe izan



behar du. Planifikazioak ez du izan behar tekniko edota jakintsu batzuren altxor izkutatua, guztion eskuetan egongo den lanerako errimentera erabilgarria baizik.

Horretan saiatzen ari gara EKBtik, EKB osatzen dutenen konpromezuarekin, eta horren ondorioa da liburu hau. Liburua bera ere ez da pertsona batek idatzia, pertsona askoren emaitza baizik: EKBko Plangintza Batzordeak egindakoa, UEUko Soziolinguistika Saileko mintegietan landutakoa, herrietako taldeen artean eztabaidatutakoa, ikastaro ezberdinetan hitz egindakoa, hainbat egilek idatzitakoa eta guzti hauen esperientziatik bildutakoa. Aipatu nahi ditugu hemen Txillardegi, Txepetx, Iñaki Larrañaga, Kike Amunarriz, Iñazio Agirre, Iñaki Arruti, Julen Arejolaleiba, Joseba Alvarez, euren testuak liburu honen osaketan erabili ditugulako. Aipatu nahi ditugu baita ere herriz-herri lanean ari diren guztiak, liburu honi edukia eurek eman diotelako. Aipatu nahi dugu, azkenik, UEU, berari esker liburu honek argia ikusiko duelako.

Liburuak sei atal ditu. Lehenengoan sarrera hau. Bigarrean, «Erakunde Publiko eta Erakunde Herritarren arteko Elkarlana Hizkuntzaren Normalizazioan», 1988an Jaurlaritzak eta HIZGABEk antolaturiko «Herri-administrazioan Hizkuntz Plangintzari buruzko Biltzarre»an EKBk irakurritako komunikazioa agertzen da. Bertan Instituzio eta Herri-ekimeneren arteko elkarlana EKBk nola ulertzen duen eta zein proposamenak egiten dituen adierazten da.

Hirugarrenean, «Euskararen Egoera eta Irtenbideak», euskara egun zein egoeran aurkitzen den eta zeintzu liratekeen eman beharreko urrats nagusiak azaltzen dugu.

Laugarrenean, «Lehenengo Urratsa. Hizkuntz Komunitatearen Konpaktazioa», konpaktazioaren ezinbestekotasuna normalkuntza prozesuan agertzen dugu.

Bostgarrenean, «Bigarren Urratsa: Hizkuntz Normalkuntzaren Planifikazioa», herri tipologia ezberdinetan lehentasunak finkatzen ditugu, planifikaziorako metodologia zehatzen eta adibide bat eskaintzen.

Seigarrenean, «Antolaketa eta Funtzionamenduaz», herrietako taldeen artean Zarautzen ospatutako Topaketetan honi buruz ateratako ondorioak azaltzen ditugu.

Nahia eta gogoia, esperientzia eta indarra, tresnak eta bitartekoak. Guzti hauek biltzen direnean, saiatu arren hizkuntza bat suntsituko duenik ez dago, horretan sinisturik gaude. Bitartean Euskarak aurrera darrai.



**II.**  
**ERAKUNDE PUBLIKO ETA ERAKUNDE**  
**HERRITARREN ARTEKO ELKARLANA**  
**HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOAN**



## **ERAKUNDE PUBLIKO ETA ERAKUNDE HERRITARREN ARTEKO ELKARLANA HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOAN**

Hizkuntzaren normalkuntzaren eta kulturaren berpizkundearen politika bideratzean leku guztietan gertatzen da konponbideratu beharreko arazo berezia erakunde publikoen eta erakunde herritarren arteko harremana.

Euskal Herrian larria da arazoa frankismoa amaitu eta gero sistema politiko berria sortzen denetik hiru arrazoi hauengatik:

- a) Euskal Herriaren lurralde esparrua hiru komunitate edota lurraldetan zatikatuta egotea (Iparraldea batetik, Nafarroa bestetik, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa azkenik), horrek hizkuntza eta kultura nazionalen politika bateraturako jartzen duen ezegokitasun eta kontradikzioarekin.
- b) Herritarren sektore politiko garrantzitsu batek erakunde publiko horiek ez onartzea beren politikagintza funtsezkoan, horrek erakunde herritarren eta publikoen arteko langintzan sortzen duen tirabira eta kontradikzioarekin.
- c) Erakunde autonomikoak sortu baino lehenagotik borrokan eta lanean diharduten erakunde herritarren zabalkunde eta indarra, erakunde horietako batzu publiko izatekotan jaiok eta eratuak gainera. Agintaritza publiko zatikatuari bereganatu eta jasan ezina gertatu zaio nonbait herri-dinamika eratu hori.

## **1.- ZENBAIT KONTZEPTU ARGITU BEHARREKO**

Hiru motatako erakundeak bereiz ditzakegu, horien iturburuari eta helburuari begiratuz: erakunde publikoak, erakunde pribatuak, erakunde herritarrak.

**Erakunde publikoen** iturburua agintaritza publiko-politikoa da. Herritar guztien ona edo 'on publikoa' ordenatzea eta horren gozamina artikulatzea da erakunde publikoen helburua, berez. Erakunde publikoen agintetik edo "ofiziotik" zuzenean sortu eta eraturiko erakundeak *ofizialak* deitu ohi ditugu.

**Erakunde pribatuak** lagunbanako batzuren ekimenez sortuak eta eratuak dira; horien helburua giza multzo baten interesak betetzea da.

**Erakunde herritarrak** sortu eta eratu herritarrek berek egiten dituzte, herritar direnez, eta ez interes partikularren arabera. Herritar guztien edo gehiengoaren arazoren bati erantzuteko eta konponbidea bilatzeko eratu ohi dira erakunde herritarrak. Euskal kulturaren alorrean, bide horretatik sortu eta eratu ziren ikastolak, A.E.K. (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea), Antzerki-taldeen federazioa (E.A.T.B.), U.E.U. (Udako Euskal Unibertsitatea), E.H.E. (Euskal Herrian Euskaraz), E.K.B. (Euskal Kulturaren Batzarrea), etabar.

Hiru motatako erakundeak elkarretatik ongi bereizi behar dira, bakoitzak bere izaera eta funtzioa duelako. Eta horien oinarri funtzionala ere ezberdina da: erakunde publikoa **boterean** oinarritzen da; erakunde pribatua, **konkurrentzian**; erakunde herritarra, **militantzian**. Guzti hori aski garrantzizko da, bakoitzaren dinamika aztertzeoan.

## **2.- HIZKUNTZ NORMALKUNTZA ETA HERRI-DINAMIKA**

J.M. Sanchez Carrionek hizkuntza gutxituaren normalkuntza hizkuntz elkarte osoaren martxa kolektibo gisa irudikatzen du. Hizkuntz ordezkapena elkartearen eta norberaren atzerripena baldin bada -arrozketan-, horren berreskurapen-prozesua aberriratzea da, aberrirako bidea egitea.

Bi aldetatik arrazoitu behar da hori: batetik, herria da bere hizkuntzaren jabea (hizkuntza fenomeno sozial eta kolektiboa da); bestetik hizkuntz normalkuntzaren helburu soziala horren erabilera da, hau da, herriak bere hizkuntza beronen funtzio guztietan benetan erabiltzea. Hori ez da lortuko, ordea, herria bera normalkuntzaren subjektu bizi eta eragile bihurtu ezean.

Horren adierazgarri, lekuko eta eredu nabarmena dugu Euskal Herriko herri-dinamika, bertako erakunde publikoak kontrako dituenean. Horixe aitortu zuen argi eta garbi Eusko Jaurlaritzaren 1980-1984 *Egitamauak: "Hasta el momento actual el movimiento cultural y educacional vasco se ha apoyado casi exclusivamente en la iniciativa entusiasta de los ciudadanos. Carente de medios, carente de las infraestructuras mínimas, enfrentándose tantas veces con la hostilidad del mundo oficial, ha constituido una auténtica acción popular, presentándose, por encima de las diferencias ideológicas, como una constatación y una reivindicación permanente y fundamental de la identidad del Pueblo Vasco (70.or.).*

Ezaguna da, baita ere, L.-J. Calvet-en esaldi hura: "La disparation d'une langue (la glottophagie réussie) ou son contraire dépendent de nombreux facteurs non linguistiques, en particulier des possibilités de résistance du peuple qui parle cette langue" (Linguistique et colonialisme, Payot, 1974, 81. or.)

Herri-dinamika hizkuntz berreskurapenaren definizioan bertan sartzen baldin bada, horren protagonismoa nahitaezkoa da, batetik, eta bestetik, hizkuntzaren normalkuntzarako edonolako politika eta plangintza egokiren oinarri, erdigune eta baldintza bihurtzen da herri-dinamika hori. Euskararen normalkuntzarako plangintzak eta politikak herri-dinamika bultzatzera, indartzera eta koordinatzera jo behar du.



### **3.- HIZKUNTZ PLANGINTZAREN AGENTEAK**

Hizkuntzaren normalkuntzarako plangintza orokorra lantzeko eta bideratzeko botere politikoa behar da. Hori eta bitarteko ekonomiko eta legezkoak ere neurri haundi batean **erakunde publikoen** esku daudenez hauek lirateke hizkuntz plangintzaren arduradunetarik lehena.

Hizkuntzaren normalkuntzarako plangintzak, bere dimentsio publiko-administratiboarekin batera, alderdi teknikoak du. Horregaitik horren bigarren oina-edo, hizkuntz alorreko **talde teknikoak** dira hain zuzen. Erakunde publikoekiko horien autonomia beharrezkoa da, alderdi politiko jakin baten zerbitzuan eta menpe egon ez dadin horien lana.

Herria da beste funtsezko agentea hizkuntzaren plangintza osoan eta horren aplikatzean.

Hiru oinak ditu behar-beharrezko hizkuntzaren plangintza egokiak. Administrazio publikoak egin dezake plangintza ederra, baina herri-dinamikatik abiatu eta horretan oinarritzen ez baldin bada, **buokratikoa** -eta benetako eraginik gabekoa- gertatuko da plangintza hori; bestalde, talde teknikoek azterketa ederrak egin ditzakete, plangintza egin eta bideratzeko eta kontrolatzeko, baina herri-dinamikan oinarritzen ez bada eta horri eragitera ez baldin badoaz, erabat **teknokratikoa** gertatuko da plangintza, eta, beraz, eraginik gabekoa.

Plangintzak funtsean **demokratikoa** izan behar du: hau da, herritik abiatu, herrian oinarritu eta herrira iritsi behar du. Herria ezin daiteke plangintza administratibo-teknikoaren hartzaile eta betetzailerik izan; plangintzaren erazle eta partaiderik izan behar du.

Izan ere, historikoki herri-erakundeak izan dira administrazio mailako aurrerapausuak eragin dituztenak. Hor daude, adibide gisa, orain urte batzuek E.H.E. (Euskal herrian Euskaraz) erakundeak eramandako burruka luzearen ondorioz udal askotan sortutako Euskara Batzorde edota zerbitzuak. Egunotan biltzar honetan bertan aztertzen ari den Komunitate Autonomo honetako administrazioa euskalduntzeko lanpostuetarako

hizkuntz perfilen plangintzak ere zailtasun haundiak izango ditu aurrera ateratzeko. Bitarteko ekonomiko eta legezkorik ziurtatzen ez delako batetik, eta plangintza egin duen gobernutik bertatik berau oztopatuko duten jokabide erabat arbuiagarriak eta salatzeke modukoak ematen ari direlako bestetik (Jaurkitzean agintean dagoen alderdi bereko gobernadore zibilak euskararen kontra ezartzen ari diren errekursoez ari gara), kasu honetan ere herri dinamika eta presioari esker emango dira aurrerapausuak, ematekotan.

Herriaren eragina eta partaidetza horiek bideratzeko, berriz, erakunde herritarrak, daude, bereziki hizkuntzaren eta kulturaren alorrean dihardutenak, baina baita bestelako guztiak ere. Horien koordinazioa, berriz, behar-beharrezkoa da, sail guztietako erakunde herritarrak bateratuko dituen, plangintzari begira benetan plataforma herritar zabala eratzeko. Euskal Herriko kasuan beharrezkoa da herri-plataforma nazionala, hizkuntza nazionalaren berreskurapenerako plangintzarako.

Herri-erakundeek, plangintzaren oinarri eta eragile gisa, badute beste eginkizunik ere: hau da, plangintzaren aurrerabidearen eta gauzatzearen kontrola, alegia.

Azkenik esan beharra dago, erakunde publikoak hiru administrazio-eskualdekotan banaturik dauden Euskal Herrian, herri-dinamika nazio-mailan eratuak eta koordinatuak bakarrik eman diezazkiokeela euskararen plangintzari oinarri eta ikuspegi nazionala, neurri batez behintzat.

#### **4.- ERAKUNDE HERRITARREN PLATAFORMA**

Indar herritarren antolakuntza beharrezkoa da: taldetan, elkartetan, erakundetan,... Sailka eta lurraldeka, herriaren auto-edo buru-erakuntza deitu genezake. Plangintzak funts-funtsean eraketa eta antolamendua eskatzen du.

**Herri-plataforma** gisa defini genezake indar herritarren buru-erakuntza hori: ez da erakunde erraldoi bakarra, eta bai antolaturik eta eraturik dauden euskalgintzako taldeen, elkarteen eta edonolako erakundeen topagunea eta koordinakundea, euskararen normalkuntzarako plangintzari begira proiektu globala lantzeko eta bateraturik jokatzeko. Plataforma kontzeptuak ez du oportunitatearen edo beste zerbaitetarako erabiltzen den tresnaren irudia eman behar.

Bi oinarri funtsezkotara ekar genezake hizkuntzaren normalkuntzarako plangintzan erakunde herritarren partaidetza bizia eta aktiboa onartzeko, sustatzeko, zabaltzeko eta finkatzeko:

- 1) **Linguistikoa** da bata, hizkuntzaren normalkuntzaren prozesutik eta plangintzatik bertatik datorrena: hau da, horretarako abiaburuan eta helburuan herritarren euskararekiko motibazioa, ikasketa eta erabilera jarri behar baldin badira, plangintza ez da agintarien eskuetatik eta borondate onetik etor daitekeen zerbitzu sozial soila.
- 2) **Demokratikoa:** benetan demokrazia partizipatiboa denean, eta erakunde publikoek beren funtzioa herritarren ordezkari gisa edo haien ordezkari gisa soilik bete beharrean, haien partaidetza sustatuz betetzen dutenean. Alde honetatik esan daiteke herritarrek dutela lehentasuna, eta erakunde publikoak herri-mugimenduaren zerbitzutan daudela.

Beraz, erakunde herritarrak ez dira besterik gabe erakunde publikoen edo administrazio publikoen azpijaletzat jo behar, hasteko. Alderantziz, gizartearen bizitza politiko eta demokratikoaren funtstzat jo behar dira.

Erakunde herritarren izaera, erakuntza eta koordinazioa horrela ikusita, ez luke inola ere erakunde publikoen aldetik inolako ukorik, susmo txar printzipiozkorik eta baztertzerik izan behar.

## **5.- HERRI-ERAKUNDEEN FUNTZIOAK**

Hizkuntzaren normalkuntzarako plangintzan hainbat fase edo urrats bereizi ohi dira: helburuen definitzea, bitarteko edo helpideen aukeratzea, lehentasun edo prioritateen erabakitzea, arlo bakoitzeko programa zehatzak markatzea, behar diren finantz bideak aurkitzea eta zehaztea, kontrolak ipintzea, etab.

Erakunde herritarren partaidetza ez da halako fasetan hasten edo bukatzen; guztietan hartu behar dute haiek parte, beren aldetik eta beren erara: erakunde herritarren partaidetzarekin landu, bideratu eta burutu behar da hizkuntzaren normalkuntzarako plangintza, egokia izango bada.

Partaidetza horrek aktiboa, kontzientea eta etengabea izan behar du. Herritarrek eta erakunde herritarrek ondo jabetuta hartu behar dute parte plangintzaren prozesu osoan. Azkenik, herriari eta erakunde herritarrei ez diete erakunde publikoek halako edo holako ekintza edo mobilizazio isolatutara deitu behar, eta prozesu osoan suspertu egin behar dute horien partaidetza iraunkorra eta etengabea.

Aipa ditzagun hemen J.M. Sanchez Carrionen hitzak: *"El momento histórico en que los grupos sociales ceden su poder de movilización y delegan sus aspiraciones populares en los grupos políticos está muy por detrás de lo que la comunidad lingüística necesitaba para garantizar su supervivencia, con el agravante de que se tiene la impresión de haber avanzado mucho más de lo que verdaderamente se ha hecho, habiendo perdido además, capacidad de movilización. (...) Lo cierto es que sólo mediante una lealtad lingüística a nivel de la comunidad de los hablantes es posible el mantenimiento de una lengua. Esta lealtad se produce además, mediante la generación de una cultura atractiva, capaz de entusiasmar y dar sentido a ese poder de movilización, y no mediante la creación de un apartado burocrático que sólo puede distribuir fondos"*(Navarra Hoy egunkariari egindako adierazpenak, 88-4-18).

Herri-erakundeen partaidetza ez da negatiboa ezta alternatiboa ere. Administrazio publikoaren politikaren kritika negatiboa, besterik gabe, baztertzekoa eta sahiestekoa da erakunde herritarren aldetik. Era berean, erakunde herritarren partaidetza ez da plangintza

alternatiborik eskaintzeko, eta bai, printzipioz behintzat, erakunde publikoekin plangintza landu, bideratu eta burutzeko partaidetza artikulatua bilatzeko.

Azkenik, erakunde herritarren partaidetza maila guztietakoa izango da, hau da, administrazio publikoaren maila guztietakoa: nazio mailako, herrialde mailako, herria eta auzo mailakoa. Dena dela, maila bakoitzean ezberdinki definitu beharko dira erakunde herritarren funtzioak eta horien artikulazioa erakunde publikoekin. Koordinakunde nazionala beharrezkoa den bezala, herrialde eta herri mailako koordinazioa beharrezkoa da.

## **6.- ERAKUNDE PUBLIKOEN ETA ERAKUNDE HERRITARREN ARTEKO HARREMAN DIALEKTIKOAK**

Prozesu dialektikoaren arabera, hiru urratsetan burutzen da harreman hori erakunde publiko-ofizialen eta herritarren artean: baiespena edo elkarren onarpena, ezespina edo elkarren kritika, berrespena edo alde bakoitzaren sendotzea.

Hasteko, beraz, alde bakoitzak bestearen izaera eta funtzioa onartu behar du: batetik herri-dinamikaren eta herri-erakunde koordinatuen ezinbestekoa eta protagonismoa euskararen berreskurapenaren bidean; bestetik, plangintzarako erakunde ofizialen premia eta horien funtsezko eginkizuna eta erantzunkizuna plangintzaren formulazioan, horretarako finantz baliabideak jartzean, horren gidaritzan, etab.

Bi aldeen arteko lankidetzak ez du ukatzen bakoitzak bere eritzi era jokabideak edukitzea eta elkarren arteko gatazkak ere egotea. Erakunde publikoek onartu beharra daukate erakunde herritarren kritika eta desbideraketan salaketa, alderantziz bezala; elkarri legitimotasuna aitortu, bere eginkizunak betetzeko. Funtsezko kritikak ere ezin du onarpen politikoa ukatu.

Lankidetzak onartzeak eta horren barruan kritika egiteak eta tirabirak egoteak, azkenean bi aldeen arteko elkarren finkatzea esan nahi du, erabateko etena gertatzen ez den bitartean, eta lankidetzari eta autonomiari eta elkarren arteko kontrolari eusteko nahia eta borondatea tinko dauden bitartean.

Harreman dialektikoak, eman izan diren eta oraindik ere ematen ari diren lau joera baztertzea eskatzen du, beraz:

- **Suplantazioarena:** herri-mugimendu bat desarroilatzen ari den lana erakunde publikoak lagundu eta bultzatu beharrean, lan hori bera egiteko beste erakunde bat sortu eta herri-mugimendua diskriminatzen duenean.
- **Paralelismoarena:** jokabide politikoetan alde batek bestea ukatuz edo aintzakotzat ez hartuz.

- **Automarginazioarena:** erakunde herritarrak erakunde publikoen kritika hutsean geldituz, eta praktikan haien funtzioa ukatuz, edota konfrontazio hutsean jokatzuz.



## **7.- EKB ETA ERAKUNDE PUBLIKOAK**

EKBk euskalgintzako eta euskal kulturgintzako talde, elkarte eta erakunde herritarren koordinakunde ireki eta zabaltzat jotzen du bere burua, euskararen normalkuntzarako eta berreskurapen osorako plangintzari begira eratua.

Orain arte aipaturiko printzipioen gain ordua da harreman berriak artikulatzeko, elkarrizketaren eta lankidetzaren bidez, maila guztietako erakunde publikoen eta maila bereko erakunde herritarren koordinakundearen artean. Hona proposamen batzu:

- 1.- Erakunde herritarrek beren ordezkariak eduki erakunde publikoen plangintzarako organu kontseilarietan: plana egiteko, bideratzeko eta burutzeko prozesuan.
- 2.- Herri-erakundeek beren programa eta proiektuen berri bidali erakunde publikoei: komunikazioa erraztu.
- 3.- Erakunde publikoek erakunde herritarrei azpiegiturarako laguntzak eman.
- 4.- Herri-erakundeek sostengurako laguntza ekonomiko iraunkorrerako formak estudiatu erakunde publikoen aldetik: hitzarmen iraunkorrak: AEK, euskarazko aldizkariak, Ikastolak, UEU, etabar.
- 5.- Plangintzaren barnean proiektu konkretuetan lankidetzak konkretua bi aldetako erakundearen artean.
- 6.- Erakunde herritarrek antolaturiko ekintza edo proiektu konkretua bi aldetako erakundearen artean.
- 7.- Erakunde publikoek antolaturiko ekintzetan erakunde herritarren inplikazio benetakoa gauzatzeko formulak bilatu, erakunde herritarren militantziaz ere baliatuz.

- 8.- Erakunde herritarren koordinakundearen ordezkarien eta erakunde publikoen arteko batzorde iraunkorra sortu, harremanak bideratzeko eta gatazkak konpontzeko. Horren bidez kanalizatuko lirateke erakunde herritarren errebindikapenak ere, eta bestelako iradokizunak.
- 9.- Kanpaina espezifikoak egin, herri-erakundeek antolatuta, baterakoiak, erakunde publikoen euskarriaz eta onarpenaz.
- 10.- Nazioarteko harremanetarako bi aldeen lankidetzaz berezia antolatzeko moduak aurkitu.
- 11.- Plangintza diseinatzeko eta hori aurrera eramateko erakunde herritarren partaidetza militantea espezifikatu.

EKBk eskua luzaturik dauka.

*1988ko Udazkenean*



**III.**  
**EUSKARAREN EGOERA ETA IRTENBIDEAK**



## ***1.- EUSKARA GAUR EGUN***

Historian zehar Euskarak izan duen lurralde atzerakadaz gainera, hizkuntza kontserbatu den lurraldeetan izan duen erosio edo higidura ere sakona izan da. Euskal zona izenekoa ere erdararen menpean jartzen ari bait da, barrendik pipiak jota dagoen egurraren edo sitsak janda dagoen ohialaren antzera aurkitzeraino. Era horretan, hizkuntzaren ordezkapen-prozesu bat burutzear dagoela adierazten duen hainbat sintoma agertu zaigu. Argi gorri guztiak piztuz alarma-seinale bezala funtzionatzen duten sintomak.

1. Euskaldun elebakar guztiak desagertu egin dira gure lurraldeetatik. Guztiak elebidun bilakatu dira. (Ordezkapenaren fase aurreratuaren 1. seinalea).
2. Alderantziz, erdaldun elebakar asko dago, gehienak, euskara ikasi ez dutenak eta ikasi beharrik ere sentitzen ez dutenak. Nahiz kanpotik etorriak nahiz bertan jaioak. (Ordezkapenaren bigarren seinalea).
3. Horren ondorioz, Euskal Herrian euskara bakarrik jakinez bizitzea ezinezkoa gertatzen den bitartean, erdara bakarrik jakinez, posible ez ezik, gehiengoaren egoera arrunta bilakatu da. (Ordezkapenaren azken-aurreko urratsa).
4. Euskarak, biziko bada, ezinbestekoa duen lurgune edo nukleo geografiko minimorik ere ez du. Euskal zona deituriko espazio edo lurgune hori puskatua eta zatikatua aurkitzen da. Erdararen itsaso zabalean aurkitzen den artxipielago baten antzera, lurgune batzuk agerian eta zenbait lurralde betiko erdararen urpean gelditzeko arriskuan.
5. Euskaldunak diren lurguneetan ere ezinezkoa gertatzen da, egun osoz eta bizitza sozialaren alor guztietan, euskara erabiliz bizitzea. Erdarak okupaturik bait ditu ez bakarrik Administrarritza, Komunikabideak eta beste, baita ere kaleak, enparantzak, dendak, tabernak,...

6. Bestalde, hizkuntzaren erreprodukzio sozialaren mekanismoak huts egiten ari dira. Horien artean, bereziki, familia bidez egiten den transmisio prozesuarena. Kontua ez da oraingo, baina gaur egun geroz eta gehiago dira, batez ere eskualde erdaldunenetan, familian ikasten hasitako euskara kanpoan indartsuago den erdarak ito eta suntsitu egiten dioten kasuak.
7. Euskararen erabilpena, azkenik, maila alarmagarrietara jaitsi da. EKBk 1989an Euskal Herri osoan egindako euskararen kale-erabilpenaren neurketan jasotakoaren arabera 10.000tik gora biztanle duten herrietan euskara dakitenen erdiek ez dute erabiltzen bere bizitzako harreman arruntetan. Proportzio hori gazteen artean oraindik beherago jaisten da. Horrela, edozein hizkuntzaren ordezkatzeko prozesutan gertatzen dena gure artean ere gertatzen da: Euskara zaharren eta haurren hizkuntza izatea.

	Haurrak			Gazteak			Helduak			Zaharrak			Guztira		
	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.
Araba	9,75	2,92	0,30	7,81	2,07	0,27	5,03	1,98	0,39	5,66	0,74	0,13	6,38	2,04	0,32
Bizkaia	15,03	6,91	0,46	13,79	3,35	0,24	12,27	4,96	0,40	17,93	8,02	0,45	13,67	5,39	0,39
Gipuzkoa	43,39	27,99	0,65	36,17	11,61	0,32	34,33	13,77	0,40	47,50	23,53	0,50	37,77	17,02	0,45
Lapurdi		7,20			1,23			3,92			5,36		8,31	4,34	0,52
Nafarroa	7,78	3,80	0,49	5,06	1,11	0,22	5,02	1,30	0,26	5,15	0,55	0,11	5,57	1,71	0,31
Euskal Herria		11,24			5,05			6,53			10,71		18,07	7,62	0,42
Hego Euskal Herria	20,50	11,37	0,55	18,05	5,16	0,29	16,62	6,60	0,40	23,66	10,97	0,46	18,38	7,72	0,42

- Eusk.: Euskara dakitenen portzentaia.
- Erab.: Kalean euskaraz ari direnen portzentaia.
- Ind.: Ezagutza eta erabilpen portzentaiaen arteko indizea.

Sintoma edo seinale guzti hauek adierazten dute, katastrofismoan erori gabe, Euskara egoera benetan larrian aurkitzen dela eta Euskara/erderaren arteko indar-erlazioa zeharo erdadaren alde desorekatua dagoela. Hizkuntz ordezkapen-prozesua oso aurreratua, ia atzera egin ezinezko punturaino iritxita dagoela. Guzti hau ukatu ezinezkoa da.

Euskarak ez du inoiz hain gertu ikusi bere heriotzea eta, aldi berean, ez du sekulan gaur adina baliabide izan normalkuntzari ekiteko. Izan ere, gaur egun, hizkuntz ordezkatzeko prozesura daramaten faktoreak eta euskararen berreskurapenean eragiten dutenak batera ari dira gertatzen.

Horregatik, Euskararen biziraupena inondik ere ziurtaturik ez dagoen bitartean ezin esan daiteke ez dela galduko, eta gainera, gauzak ondo doazelakoan jokatzeko askotan. Horrek lasaitasunera garamatza eta, ondorioz, bakoitzak euskararen berreskurapenean izan behar duen jarrera aktiboa eta konpromezuzkoa ahuldu egiten da. Honek horrela segituz gero, J.M. Sanchez Carrion «Txepetx»ek, Txillardegik, Larrañagak eta beste adituek dioten moduan, euskararenak egin du.



## 2.- ERAGILE NAGUSIAK

Aurreko atalean azaldu dugun moduan, aldagai askok eragiten baldin badu ere hizkuntza zapaldu baten normalizazio prozesuan, aldagai guzti horiek oinarritzko bi hauen inguruan biltzen dira: *Instituzioen dinamika* eta *Herri dinamika*. Biak dira ezinbestekoak eta ez batari ez besteari ez zaio bere garrantzia kendu behar. Alde bakoitzak bere lekua, erantzunkizuna eta eginkizuna du. Hau oso garrantzitsua da eta horregatik errepikatu nahi dugu behin eta berriro.

Hizkuntzaren normalkuntzarako plangintza orokorra politika orokorraren barruan gertatzen da; beraz, plangintza hori bideratzeko botere politikoa behar da, hau da: indar legala eta bitarteko ekonomikoak behar dira. Eta bi hauek Instituzio publikoen esku daudenez, hauek lirateke plangintza egokia bideratzeko borondate eta dinamika azaldu behar luketen lehenak.

Bestalde, hizkuntza, Euskara, ezaugarri nagusizat duen herri osoaren ondarea da. Eta, gure kasuan, zalantzarik gabe herriari zor zaio euskararen biziraupena, historian zehar funtsezkoa izan bait da herri-dinamika euskararen aurkako erasoei jarkitzeko. Herria da, beraz, bere hizkuntzaren subjektu eta gordailu eta, zentzu honetan, ezinbesteko bihurtzen da herri-dinamika euskararen iraupena, berreskurapena, sustapena eta gorapena arautzeko orduan.

### **3.- URRATS KUALITATIBOAREN BEHARRA**

Gure hizkuntza nazionala egoera larri honetatik ateratzeko funtsezkoa da herritar guztion inplikazioa, euskaldunona bereziki. Euskararen etsaiak neutralizatu beharra dago, axolagabeak euskaltzaletu, euskaltzaleak hizkuntzaren aldeko mugimenduetan (talde, elkarte eta erakundeetan) antolatu, herritarrak mobilizatu,... Guzti horretarako, euskararen aldeko kontzientzia mailak haunditzeko, euskararen eskubideak aldarrikatzeko, bere beharrak kaleratzeko, erasoak salatzeke, ... ekintzak, kanpainak eta mobilizazioak egiten dira eta oso beharrezkoak dira, zalantza izpirik gabe.

Baina horiek ez dira aski.

Ez da aski gizartearengan euskararen balore soziala areagotuko duten kanpainak egitea, ez da aski euskararen aldeko neurriak har daitezen presionatzea, ez da aski uneoro gure euskaltzaletasuna aldarrikatzea.


Guzti hori ez da aski baldin eta oinarriak behar bezala eta indartsuki sustraitzen ez baditugu. Guzti hori beharrezkoa da, baina ez da aski, horrekin batera euskararen aldeko aurrerapausu nabarmenak emateko egituraketa sendo bat sortzen ez badugu.

Eta aurrerapausu horiek bitan laburbiltzen dira:

1. Hizkuntz komunitatearen konpaktazioa.
2. Hizkuntzaren normalizaziorako planifikazioa.

Euskararen etorkizunarekin konprometituak sentitzen garenok elkarrekin eta norabide berean elkarlanean hizkuntz planifikazioa seriooki lantzen hasi behar dugu. Horren inguruan, dauzkagun indarrak aprobetxatu eta kohesionatu ondoren, lan positiboaren eraginez gero eta giza-sektore gehiago inplikatzeko joateko.

Txepetxen hizkuntzaren ikaskuntza prozesuaren adierazpen grafikoaren plagioa eginez, honela adieraziko genituzke bi aurrerapausu hauek:



Gauza bat, beraz, kontutan hartu behar da: prozesu hau ez da lineala, aldiberekoa baizik.

Planifikazioa lantzen hasteak ez du suposatzen aurretik konpaktazio prozesua erabat buruturik egon behar duenik; besteren artean euskaldungoaren konpaktazioak denbora mugarik ez duelako eta «euskara salbu ikusi arte» irauten beharko duelako. Gainera, hizkuntz komunitatearen konpaktazioa bideratzerakoan oso garbi eduki beharko da zer egin nahi den, hau da, bilduriko indar eta energia guzti horrek, non, noiz, nola eta zertan eragingo duen, alferrik ixuri eta gal ez dadin.

Bestalde, hizkuntz planifikazioak beti ukan behar du bitarteko helburu bezala konpaktazioa, hau da, ahal den eta hizkuntz komunitate trinkoena osatzea, ahal den eta euskaldun gehien erakar eta biltzea. Kontutan hartu gainera, lehen aipaturiko indar eta energia hori gabe planifikazio politenak ere alferrikakoak izango direla.

Irakeko basamortuko petroleo-putzuetan erretzen ari den bezalako energia galdua gerta daiteke planifikaziorik gabeko konpaktazioa; gasolarik gabe abiatu ezin duen «Porche» eder zein alferrikakoa konpaktaziorik gabeko planifikazioa.

**IV.**  
**LEHENENGO URRATSA: HIZKUNTZ**  
**KOMUNITATEAREN KONPAKTAZIOA**



## ***1.- HIZKUNTZAREN ESKUBIDE NATURALAK***

Hizkuntza instituziorik sozialena da, eta *fenomeno soziala denez* herri eskubide edo *eskubide kolektiboen mailan dago* eta, beraz, eskubide kolektiboak eskubide indibidualen markoa direnez, hauek ezin dira haien bizkar bete. Eskubide kolektiboek ematen dute interes orokorra, eta partikularren interesak ezin du interes orokorra azpiratu. Gainerako esparru guztietan ere horrela gertatzen da. Arlo guztietan interes orokorrak interes partikularrei gailentzen zaie. Eta horrela jokatzen dute European ere: Suitza, Belgika, Jugoslavia etabar. Herri horietan, adibidez, hizkuntz komunitatearen berezko hizkuntzaren ikaskuntza osoa ez da hautapen pertsonala, herri-aukera baizik.

Hizkuntz eskubidea, hizkuntz komunitatearen eskubide naturala da. Eta eskubide naturala denez, Estatu hedakorretako eliteek erabili dezaketzen beste edozein eskubide baino aurreragokoa eta lehenagokoa.

Munduko gainerako hizkuntzak bezala eta gradu berean, euskarak ere hiru eskubide naturalak ditu:

1. Euskara Euskal Herri osoan hizkuntza osoa izateko eskubidea.
2. Euskal Herriak bere hizkuntza, Euskara, modu oso batean jaso eta transmititzeko duen eskubidea.
3. Gurasoek bere seme-alabei euskara transmititzeko eskubidea.

Egin behar dugun sokatira ez da pertsona bakoitzak edo norbanakoak dituen eskubideetan oinarritu behar, hizkuntz komunitate osoaren eskubideetan baizik. Bakarkako eskubide-erreibindikazioaren bidetik ezer gutxi lor dezakegu. Gehienez, gizarte-bizitzako alor batean edo bestean, eta borondate oneko pertsonekin topo egiten dugun neurrian, erabili ahal izango dugu gure hizkuntza noizbehinka; eta, dakigunez, hori ez da kontua. Hemen jokuan dagoena, hizkuntz komunitate batek, Euskal Herriak, bere osotasunean bere hizkuntzan bizi ahal izatea ala ez izatea da.


Hizkuntz komunitate bakoitzak eta, beraz, gureak ere bai, zein eskubide dituen argi eta garbi ulertu, hausnartu eta bere haragi bihurtu behar ditu. Hau egitea ezinbestekoa da, ez bakarrik minoria edo elite mailan baizik eta hizkuntz komunitatea osatzen dugun guztion mailan.

## 2.- HIZKUNTZAREN BARNERATZE BIDEAK

### a) *Ikaskuntza naturala (primarioa): «A» prozesua*


Hauxe da ama-hizkuntza jasotzeko hurrek zeharkatzen duten prozesua. Laburki esanda, haurrak imitazio ihardunez zenbait hitz, soinu edo hitz multzo erreproduzitzen ditu. Erabilpen praktiko honek hizkuntzaren posibilitateak ezagutzera, esperimantatzera darama haurra, eta guzti honek hizkuntzarekiko balorapen baikorra sortarazten dio, bere aktibitate edo pertsonalitatea honi atxekita agertzen bait zaio.

Beraz, ikaskuntza naturala erabilpenetik abiatzen da.



### b) *Ikaskuntza kulturala (sekundarioa): «B» prozesua*

Honelakoetan, ikaskuntza prozesuaren abiapuntua motibazio kontzientean kokatzen da. Motibazio batzuek zein besteek hizkuntza ezagutu eta erabiltzera bultzatzen dute pertsona






Prozesuaren urrats batetik bestera pasatzeko baldintza batzuk bete behar dira. Nahikotasun maila kuantifikagaitza bada ere, ikastearen aurrerapena ahalbideratzen duen maila da.

Honek adierazten digu, haur batek bere hizkuntzan erabilpen maila zehatz bat lortzen ez badu, haur horrek ez duela zuzentasun fonetiko, lexikal eta gramatikal nahikorik lortuko. Hurrenez hurren, zuzentasun linguitikoaren maila zehatz bat lortu ezin badu, zail izango da bere motibazio konpartimentua nahikotasun mailaraino betetzea. Hau da, ama-hizkuntzarekiko motibazio naturala nahikotasun mailaraino iristen ez bada, bere baitan motibazio-hutsune bat gertatzen da, berau beste hizkuntza batek bete dezake, sustituzio prozesu bati hasera emanez.

Era berean, motibazio arrazionalak (gazte eta helduetan gertatzen dena) barneratze nahikotasun maila lortu behar du hizkuntzaren ezagutzarako bultzada modura bidera dadin. Jarraian, hizkuntzaren sistema eta estrukturaren ezaguera minimo batzuk (nahikotasun maila) lortu behar du hizkuntzaren erabilera erreala gara dadin.

Bi ikaskuntza prozesu hauek lotura haundiak dituzte eta zirkuitu modura funtzionatzen dute, mugimenduaren norabidea batzutan prozesu naturaletik kulturalera izanik, eta kulturaletik naturalera bestetan.



Haur batek hizkuntzaren erabilpenetik abiatuta, A prozesua burutu ondoren, bere motibazio propioek edo gizarteak sortu dizkion beharrek eraginda, kulturatze (eskolatze) prozesua (B prozesua) has dezake, hizkuntza bera kontzienteki landuz eta bere erabilpen maila aberastuz. Zirkuitu hau, beraz, AB litzateke.

Alderantziz ere, euskara bigarren hizkuntza bezala (B prozesua) ikasi duen pertsonak kanpoko zerbait ikasi du, soil-soilik hizkuntzaren erabilpen intentsiboak pentsamendu-hizkuntza bihur dezake, aurrerantzean A prozesua zeharkatzeko posibilitateak dituelarik. Azken finean, euskara bigarren hizkuntza (kanpoko hizkuntza) izatetik lehen hizkuntza (barneko hizkuntza) izatera pasatzen da. Zirkuitu hau BA litzateke.

Zirkuitua behin eta berriro zeharka daiteke. Mugimenduaren norabidea espirala da eta ez dauka amaierarik, hizkuntza guztia ikasterik ez dagoen heinean.

### **3.- HIZKUNTZ KOMUNITATEA**

Hizkuntz komunitatea hizkuntza bera zer den definitzeko garrantzizko elementua da. Izan ere, hizkuntza, hiztunek osatzen duten hizkuntz komunitatea bait da. Beraz, hizkuntza ikastea, gramatika bat bereganatzea baino gehiago, hizkuntz komunitate batetan murgiltzea, itsastea da.

Izan ere, hizkuntza gertaera soziala da eta gertaera soziala denez bere mekanismo propioak ditu, bere erreproduzio soziala ziurtatzeko mekanismoak alegia. Horien artean aipamen berezia merezi dute famili bidez egiten den transmisioak, irakaskuntza bidez egiten diren ikasketek, komunikabide sozialen bidez egiten den erabilpenak, etab.

Hizkuntz komunitate guztiak berdinak dira, pertsona edo gizakiekin gertatzen den bezala. Ezberdintasunak egon, ba daude, baina ez dira berezkoak, gizakiak sortuak baizik, pertsonen artekoekin gertatzen den moduan.

#### **Talde soziolinguistikoak**

Hizkuntz komunitate baten barnean, bai, ba daude moeta ezberdinetako hiztunak. Hizkuntzarekiko gaitasun desberdinen arauera osatzen diren talde hauek talde sozio-linguistikoak dira. Hitzun bakoitzaren hizkuntz gaitasun desberdina, aipatu dugun zirkuituan egindako ibilbideen arauera azal daiteke:

#### ***a) Edozein hizkuntz komunitateri dagokionez:***


- 1.- AB: Jatorrizko hitzun eskolatuak.
- 2.- BA: Hitzun eskolatu jatorrizkotuak.
- 3.- A: Jatorrizko hitzun soilak.
- 4.- B: Jatorrizko ez diren hitzun eskolatuak.
- 5.- O: Hizkuntza ezagutzen ez dutenak.

***b) Euskal hizkuntz komunitateari dagokionez:***

- 1.- AB: Euskaldunzahar alfabetatuak.
- 2.- BA: Euskalduberry natibizatuak.
- 3.- A: Euskaldunzahar alfabetatugabeak.
- 4.- B: Euskaldunberriak.
- 5.- O: Erdaldunak.

Euskararen ikuspegitik, euskaldun osoa zirkuitu osoa zeharkatu duen pertsona (AB edo BA) bezala definitzen da:

AB eta BA-k osatzen dute hizkuntzaren espazio sinbolikoa, batetik hizkuntzaren posibilitate gehienak garatzen dituztelako (AB), eta bestetik, hizkuntzarekiko motibaziorik altuena eskaintzen dutelako (BA).



Talde soziolinguistikoak eta espazio sinbolikoa

#### 4.- HAUSTURA PUNTUA

Hizkuntz komunitate minorizatu bat, bere lurraldean menpekotasun eta atzerakadaren bidea utzi eta, joeraz aldatuz, bere oreka berrezkuratzen hasten denean, haustura puntuan aurkitzen da.

Euskarari dagokionez, haustura puntu edo prozesu honek jadanik hizkuntz lurralde konpaktu edo kohesionatu bat bezala funtzionatzen hastea suposatzen du, hau da, Euskararen nagusitasunaren eta lehentasunezko lurralde bezala, hori delako ukipen-zona balitz bezala funtzionatzeari uzteko forma bakarra.

«Hizkuntza batek bere lurralde propioan menperatua eta etengabeko atzerakadan dagoeneko egoera alderantz eta ere hiztun-komunitatearen berrosaketarekin bere oreka berrezkuratzen hasten deneko une hura.»



Aurreko diagraman ikus daitekeenez, `Haustura Puntu´tik behera agertzen diren ezaugarri guztiak bizi-bizirik dira gure artean:

**Funtzio-defizita:** Hizkuntza baten ordezkatzeko prozesuan lehendabizi funtzio defizita ematen da eta hizkuntza batek (gure kasuan Euskarak) ez dauka lekurik hainbat zereginetarako (Lan-mundua, komunikabideak, administrazioa...). Beraz, ordezkatzeko prozesuaren abiadura hizkuntza bati erabilera eremuak ez zabaltzetik dator.

**Aldebakarreko elebitasun soziala:** Euskarari ere, mendeak joan mendeak etorri, arlo formaleko zereginetarako lekurik egin ez zaionez, denborarekin arlo ez-formaletan eta intimidadean ere lekua jaten hasi zaio gaztelania bertako hizkuntzari.

Kanpoko hizkuntza gero eta derrigorrezkoagoa bihurtzen da komunitate zapalduaren partaide guztientzat; honela, denek ikasten dute kanpoko hizkuntza baina ez dute bertako hizkuntza ikasten bertara etorritakoek. Bertan jaiotakoek ere, erabili ezean, ahaztu egiten dute eta kasu askotan ez diete seme-alabei irakasten.

**Gutxiagotasun konplexua:** Kontuak honela, hizkuntz minorizatuaren hiztunak ez du baloratzen bere hizkuntza eta modu batera edo bestera bere izaeraren zapaltzaile denarekin identifikatzen da.

**Hizkuntz komunitatearen desegituraketa:** Egoera honetara iritsita, bitxia ere gerta daiteke euskaraz bizi nahi duen jendearekin topatzea, izan ere, gizartearen arlorik gehientsuenak ez dira bizi bertako hizkuntzan eta euskaldunak ez direnen edo euskaldun jokatzeko ez dutenen eskuetan daudenez, ez dute euskararen beharra sortarazten.

**Lege aldetiko diskriminazioa:** Desaberriratzeko prozesu honi amaiera emateko, legeztatu egiten da diskriminazioa eta arau gaindiezin bihurtu.

Ordezkatzeko prozesuaren faseak ikusi ditugu, ikus ditzagun orain zeintzuk diren «Haustura puntutik» gora normalizazio prozesuaren ezaugarriak eta faseak:

**Espazio sinbolikoaren nuklearizazioa:** Hizkuntza berreskuratuko bada, kontzientzia, gaitasuna eta koherentzia pertsonala daukaten pertsonak beharko ditu herri honek, hau da, sentimenduak ideiekin lotuz ekintza kolektibora salto egiteko gertu dauden pertsonak.

**Hizkuntz komunitatea trinkotu:** Gure proiektua sinesgarri bihurtzen goazen neurrian, gero eta gehiago joango dira euskaraz bizi nahi duten euskal mikro-komunitateetan integratuz, orduan eta errezago izango zaie belaunaldi berriei ezintasunak gainditu eta euskaldun konplexugabeak izatea. Hau lortzeko giro soziala berotzen lagunduko duten tresnak eraiki beharko ditugu, gaitasun linguistikoa hobetzen eragingo dutenak eta hizkuntz komunitatearen trinkotzea ondorioztatuko dutenak.

**Legearen aldaketa:** Ez dugu inoiz ahaztu behar gaur egun euskal nazioak jasaten duen banaketa politikoa eta lege aldetiko diskriminazioa. Ezin dugu inoiz begibistatik aldenitu euskararen berezko eskubidea bere lurraldean garatzeko komunitate baten bitartez; eskubide hori eragozten duen eragile guztien kontra borrokatu beharra egongo da euskara aurrera aterako badugu.

Legeak, hala ere, oztopo edo lagungarri baino ezin dira izan. Legeek ez dituzte kontzientziak aldarazten dekretu-kolpeaz, eta, herri mailan sortu behar den dinamika ez du faktore horrek baldintzatu behar.

**Funtzioak irabazten joan:** Helburu horrekin jarri behar gara lanean eta gure ahaleginaren arauetara izango da neurri handian gure herriaren geroa. Dinamika hau garatzeko orduan planifikazio zehatzak egin beharko ditugu aipatu funtzioak irabazten joateko (familia, lan mundua, irakaskuntza, zerbitzuak,...).

**Euskararen lurraldetasuna:** Lehenago esana dugun legez, euskarak bere berezko lurraldean erabat garatzeko daukan eskubidea ez da inoiz jarri behar eztabaidan, eskubide hori sasoian sasoiko agintarien jokoaren gainetik dago eta.

**Autokonfidantza. Sormena:** Pertsona konkrituak dira lehendabizi normalizaizkoaren gailurrera iristen direnak, horiek izango dira talde sozialetan eragiten joango direnak talde mailako autokonfidantza lortzeraino, eta dinamika horretan herritarrek agertzen duten jarreraren eta botereek ematen dituzten aurrerabideen arauerako izango da lanaren emaitza epe luzera.

Laburbilduz, hizkuntz komunitatearen konpaktazioa burutzen den uneetan, aldi edo aro berri bat hasten da: non, hiztun osoak biltzeaz gainera, esparru sinbolikoa nuklearizatuz eta horren artikulazioa posible eginez, hizkuntzaren barne-dinamika berri bat martxan jartzen den.

**V.**  
**BIGARREN URRATSA: HIZKUNTZ**  
**NORMALKUNTZAREN PLANIFIKAZIOA**





## ***1.- HIZKUNTZ PLANIFIKAZIOA***

Esan planifikazioaren zati garrantzitsu bat instituzioen bidez bideratu beharko dela, gure kasuan udalaren bidez, eta beste bat ez; bai bait dira herri mailan hainbat sail edota gizarte-alor udalaren hizkuntz politikaren «menpe» ez daudenak eta zeinetan herritarrek asko egin dezaketen (lan munduan eta gizarte-zerbitzu ez ofizialetan esate baterako). Baita alderantziz ere, hots, herri-ekimenaren lan esparrutik kanpo edo geratzen diren alorrak, erreibindikapen- edota eragin-lanetarako ez bada behintzat (adibiderik garbiena administrazioaren barne-euskalduntzea litzateke, baina baita zerbitzu publikoak eta beste ere). Azkenik, bada hainbat arlo, bataren zein bestearen intzidentzigunetik kanpo geratzen dena, neurri haundi batean behintzat: komunikabide gehientsuenak, urrutirago joan gabe.

Hala ere, azalpen honek ez du esan nahi lan-esparruen banaketak egin behar direnik udalaren eta herriko mugimendu euskaltzalearen artean: kasu batean bataren, bestean bestearen protagonismo edota gidaritzapean, baina beti izango da beharrezkoa bi inizatibaren uztarketa, bakoitzaren posibilitate eta gaitasunaren arabera. Eta honek ez du esan nahi ezta ere lanari ekiteko batak bestearen zain egon behar duenik. Egoera ideala bi estamentu hauen dinamika autonomoen uztarketa izan arren, bietako batek dinamikarik ez badu ere, besteak ekin beharko dio lanari.

Herritarren inizatibaz sortutako ekimenei bere babesa eskaini behar lieke udalak, azpiegitura, ekonomia eta beste edonolako laguntzaz, hala nola bere errekonozimendua emanaz. Era berean, udalak planteatzen dituen normalkuntzarako planak-edo, herri mugimenduak osatu egin beharko ditu herritarren protagonismoa bideratuz eta beren parte hartzea bultzatuz, baina dudarik gabe, bere lan guztia udalaren hizkuntz politika egoki bat desaroilatzeko laguntzean zentratu gabe. Hots, udala eta herritarren arteko kompetentzia eta lehia ekidin egin behar dira, eta bien arteko elkarlana eta osagarritasuna lortzera jo, jarrerak eta jokaerak euskararen aldekoak diren bitartean behinik-behin.

Erakunde herritarrek beren plan propioa eduki behar dute, eta udalak ere berea. Ondoren egin beharko da, ahal bada, bi plangintzon arteko uztarketa, menpekotasun arriskutsu eta mugatzailerik bultzatu nahi ez badugu behintzat.



### **Planifikazio mailak**

Planifikazioaren inguruko ikuspegia aldatu egin da azken urte hauetan. Orain dela bost urte planifikazioa erreibindikazio gisa planteatzen zen: «Plangintza Orokorra orain.»

Egun, berriz, planifikazioa maila ezberdinetan bideratu beharreko lana bezala ulertzen da. Ezin dugu exigentzia gisa bakarrik aurkeztu –nahiz eta bitarte honetan Administrazioak oraindik ez dion plangintza orokorrari inolaz ere heldu– guk geuk ahal dugun neurrian eta gure mailan planifikazioaren metodologiaren jabe izan behar dugu, gere ahaleginei sistematizazio minimo bat eman eta etekin handienak lortzeko.

Hiru planifikazio-maila ezberdinak dauzkagu:

- Plangintza Orokorra: Euskal Herria bere osotasunean aztertu eta landuko lukeena.
- Plangintza Sektorialak: Sektore bakoitzean hizkuntzaren normalkuntza bideratuko lukeena (administrazioa, komunikabideak,...).
- Plangintza lokalak: Herri bakoitzean eragiten duten sektore ezberdinetan lan eginez herri mailako normalkuntza bideratuko lukeena.



Hiru hauek erabat elkarloturik aurkitzen dira, eta ezin da ulertu Plangintza Orokorra bat planifikazio sektorial eta lokalak jasoko ez dituen, eta, bestalde, plangintza lokal edo sektorial baten eragipen esparrua mugaturik gelditzen da, baldin eta proiektzio orokorrago baten barruan kokatzen ez bada.

## **2.- HIZKUNTZAREN GIZARTE-FUNTZIOAK**

Jarritako helburu didaktikoa betetzera iristeko, zehaztu beharreko lehena zera da: hizkuntzak betetzen dituen funtzio eta azpifuntzioen definizio eta sailkapena. Horrelako sailkapen bat ezinbestekoa gertatzen zaigu gure lanaren sistematizaziorako. Esan behar, hala ere, baduela funtzioen banaketa orok arbitrarietate zama bat; jasagarria den zama, bestalde, lanerako sistema standar bat osatzen dugun neurrian. Adibide bezala, aipa dezagun «Cobarrubias»ek erabiltzen duen eredua eta «Nelde»k Belgikako kasurako erabiltzen duena desberdinak direla. Horrela, gure ustez, egiten dugun funtzioen sailkapen hau egokiena litzateke gure errealitate eta beharrei erantzuteko.

### 1. Administrazioa

#### 1.1. Administrazio Orokorra

- 1.1.1. Udala
- 1.1.2. Diputazioa
- 1.1.3. Autonomikoa
- 1.1.4. Estatala

#### 1.2. Justizia Administrazioa

- 1.2.1. Epaitegiak
- 1.2.2. Magistraturak
- 1.2.3. Ordena Publikoa

### 2. Irakaskuntza

#### 2.1. Hizkuntzarena

- 2.1.1. Euskalduntzea
- 2.1.2. Alfabetatzea
- 2.1.3. EGA
- 2.1.4. Euskara teknikoa

## 2.2. Hizkuntzan

- 2.2.1. Hartzaindegiak
- 2.2.2. OHO
- 2.2.3. EBB/UBI
- 2.2.4. Lanbide Heziketa
- 2.2.5. Unibertsitatea

## 3. Lan-mundua

### 3.1. Lehenengo sektorea

- 3.1.1. Nekazaritza
- 3.1.2. Arrantza

### 3.2. Bigarren sektorea

- 3.2.1. Zura
- 3.2.2. Papera
- 3.2.3. Arte grafikoak
- 3.2.4. Ura
- 3.2.5. Gasa
- 3.2.6. Elektrizitatea
- 3.2.7. Oinarrizko Ekipoak
- 3.2.8. Altzairuak
- 3.2.9. Kimika
- 3.2.10. Janariak
- 3.2.11. Edariak
- 3.2.12. Ohialgintza
- 3.2.13. Eraikuntza

## 4. Komunikabideak

### 4.1. Prentsa

### 4.2. Irratia

### 4.3. Telebista

## 5. Zerbitzuak

### 5.1. Merkataritza

#### 5.1.1. Janari/edariak

- 5.1.1.1. Arrandegiak
- 5.1.1.2. Gozotegiak
- 5.1.1.3. Harategiak
- 5.1.1.4. Janaridendak
- 5.1.1.5. Okindegiak
- 5.1.1.6. Jatetxeak
- 5.1.1.7. Tabernak
- 5.1.1.8. Hostalaritza

#### 5.1.2. Jantziak

- 5.1.2.1. Haridendak
- 5.1.2.2. Mertzeriak
- 5.1.2.3. Jantzidenda arruntak
- 5.1.2.4. Ohialdendak
- 5.1.2.5. Oinetakoak
- 5.1.2.6. Kirolendak

#### 5.1.3. Garbiketa

- 5.1.3.1. Dekorazioa
- 5.1.3.2. Apaindura
- 5.1.3.3. Drogeria
- 5.1.3.4. Tapiztegia

#### 5.1.4. Eraikuntza/Haltzariak

- 5.1.4.1. Eraikuntza materialeak
- 5.1.4.2. Tresna elektrikoak
- 5.1.4.3. Burdindegia
- 5.1.4.4. Haltzariak
- 5.1.4.5. Igeltseritza
- 5.1.4.6. Iturgintza

- 5.1.5. Grafikoa
  - 5.1.5.1. Inprimategia
  - 5.1.5.2. Liburudenda
  - 5.1.5.3. Argazki denda
  - 5.1.5.4. Bulego materialeak

- 5.1.6. Janari/edariak
  - 5.1.6.1. Erlojutegiak
  - 5.1.6.2. Ileapaindegiak
  - 5.1.6.3. Bitxidendak
  - 5.1.6.4. Loradendak
  - 5.1.6.5. Jostailuak/Opariak
  - 5.1.6.6. Automobilak
  - 5.1.6.7. Informatika
  - 5.1.6.8. Bideo/Elektrodomestikoak

- 5.2. Finantz-etxeak
  - 5.2.1. Kutxak
  - 5.2.2. Bankoak

- 5.3. Aseguru eta beste
  - 5.3.1. Aseguruak
  - 5.3.2. Autoeskolak
  - 5.3.3. Gestoriak
  - 5.3.4. Botika
  - 5.3.5. Bidai-agentziak
  - 5.3.6. Ikuskizunak

- 5.4. Garraioak
  - 5.4.1. Busak
  - 5.4.2. Trenak
  - 5.4.3. Portua
  - 5.4.4. Aireportua

- 5.5. Posta



5.6. Telefono/Telegrafoa

5.7. Osasun zerbitzua

5.7.1. Anbulategia

5.7.2. Kontsultorio pribatuak

5.7.3. Eritegiak

5.8. Erljioa

5.8.1. Parrokiak

5.8.2. Katekesiak

5.8.3. Taldeak

5.9. Juridiko-legalak

5.10. Politiko/sindikalak

5.11. Pertsonal eta profesionalak

5.12. Atsedenaldia

5.12.1. Ostalaritza

5.12.2. Jaiak

5.12.3. Dantzalekuak

## 6. Kulturgintza

6.1. Idatzia

6.1.1. Aldizkariak

6.1.2. Liburuak

6.2. Ikusentzunezkoa

6.2.1. Diska

6.2.2. Antzerkia

6.2.3. Zinema

## 7. Aisialdia eta kirola

### 7.1. Kirolak

7.1.1. Kirol zelaia

7.1.2. Pilota lekuak

7.1.3. Polikiroldegiak

7.1.4. Kirol taldeak

### 7.2. Herri kirolak


### 7.3. Aisialdi-taldeak

## 8. Senitartea

## 9. Lagunartea

# HIZKUNTZ FUNTZIOAK

## HIZKUNTZAREN GIZARTE FUNTZIOAK




### **Hizkuntz funtzioen eragina giza-multzo ezberdinengan**







Funtzio bakoitzak duen eragina adin-talde desberdinengan aldatzen da, dudarik gabe. Ez da berdina irakaskuntzak duen eragina 6 urteko ume batengan edo 40 urteko pertsona heldu batengan, eta alderantziz lan-munduaren kasuan.

Ondoren doan grafikoak hizkuntz funtzioek giza-multzo desberdinengan (haur, gazte, heldu eta zahar) duten eragina aztertzen du. Espazioei ematen zaien balio estimatiboa da, eta bere helburu nagusia eragin-espazio horietaz jabetu eta eragite-espazioetan lehentasunak zehazten laguntzea da. Era berean, grafiko honek norbanakoaren bilakaeran eragin duten espazioak ere zehatz ditzake.

ADINA



- 5.- GIZARTE ZERBITZUAK
- 6.- KULTUR MUNDUA
- 4.- KOMUNIKABIDEAK
- 7.- AISIALDIA
- 1.- ADMINISTRAZIOA



### **3.- EREMUEN DEFINIZIOA**

Planifikatu behar dugun prozesua, euskararen erabilpenaren normalkuntzaren prozesua da, baina, prozesu hori nazio-mailan bakarra izanik ere, izaera ezberdina hartzen du euskararen egoera soziolinguistikoak sortzen dizkigun garapen ezberdineko gunetean. Izan ere, planifikazioa bideratzeko, prozesua baldintzatzen duten hiru mailak kontutan izan behar ditugu: eremu territoriala, eremu soziala eta eragipen-eremuak.

#### **Eremu territorialaren banaketa**

Eremu territorialaz ari garenean, planifikatu behar dugun prozesuak eragina izango duen eremu geografikoaz ari gara. Euskal Herriaren gaur egungo banaketa territoriala kontutan izanik, hauetan bana daiteke:

- a) Nazioa. Euskal Herri osoa
- b) Iparraldea eta Hegoaldea (Nafarroa eta K.A.)
- d) Herrialdea
- e) Eskualdea
- f) Udalerria
- g) Auzoa

Eremu territorial bakoitzak garbi izan behar du zein den dagokion lana eta zein ez den berari zuzenean dagokiona. Kontutan izan behar du, bestalde, eremu territorial bakoitzean egiten denak eragin zuzena duela bere gaineko nola azpiko eremuetan: mankomunitate batek bere lana euskaraz burutuko duela erabakitzen badu, erabaki horrek eragin zuzena du bai bere menpeko udaletan nola mankomunitatez gaindiko eremuetan.

Txosten honetan aurkezten dugun programazio-proposamena Udalerrietarako dago prestatua, batez ere. Zenbait kasutan, hala ere, aplikatu ahal izango da beste eremu batzutan; eskualde edo auzoetan, esate baterako.

Udalerrietarako pentsatu diren normalizazio-egitarau horietatik kanpo geldituko dira, beraz, udalerrri maila gainditzen duten aplikazio-esparruak; baina, ez dira, ordea, erabat baztertuko, udalerrietatik eragin egingo bait da, dagokion eremuan soluzioak aurki daitezten. Esate baterako: Unibertsitatearen euskalduntzea ez da Udalerrri mailan planteiatu beharreko egitarau bat, baina udalerritik eragin daiteke, eta eragin behar da, unibertsitatean euskararen normalizazioa lortzeko: UBI amaitzen duten ikasleei euskal adarretan matrikulatu daitezten animatuz, presioa unibertsitatei beraiei zuzenduz, etabar...

Garrantzi berezia izan dezake maila honetan, nazio (edo herrialde...) mailako ikuspegi batetik udalerrri guztietarako ekinbide zehatzak planteiatzea: matrikulazio-kanpaina orokorrean, ekintza berdinak udalerrri ezberdinetan, etabar...

Dena dela, ekintza eta egitarau horiek udalerrri maila gainditzen dutenez, ez dira sartzen udalerrietarako proposatzen ditugun egitarau hauetan. Beraz, eta udalerrietara mugatuz, ikerketen ondorioz azaldu izan denari eutsiz, Euskal Herriko herriak bost tipologia nagusitan banatzen ditugu.

*Herri-tipologiak:*

- 1.- Erabat euskaldunak
- 2.- Euskaldunak
- 3.- Hiriburuak
- 4.- Erdaldunduak
- 5.- Erabat erdaldunduak

### **Eremu sozialaren banaketa**

Eremu sozialaz ari garenean berriz, hizkuntzak betetzen dituen funtzio sozialetaz ari gara, lehen ikusi ditugun hizkuntzaren gizarte funtzioetat, alegia. Hiru mailetan banatu ditugu hauek:

1.- Funtzio nazionalak: ERABAKIORRAK

- a) Irakaskuntza
- b) Administrazioa
- d) Komunikabideak
- e) Lan-mundua

## 2.- Funtzio sozialak: NAGUSIAK

- a) Kultur mundua
- b) Zerbitzu publikoak
- d) Ludiko eta aisialdia

## 3.- Funtzio afektiboak: PERTSONALAK

- a) Senitartekoak
- b) Lagun artea

Eremu sozialaren atal bakoitzak, hauetako funtzio bakoitzak, Planifikazio-Sail bat osatuko luke, nazio mailako proiektzioa izango lukeena; aurreko kapituluan, planifikazio mailak zehazterakoan hau plangintza sektoriala bezala definitu dugu. Hori da hain zuzen ere E.K.B.ko Sailen funtsa: nazio mailako planifikazio sektorialak antolatzea eta elkar koordinatzea.

### **Eragipen-eremuak**

Udalerrri guztietan hiru eragipen mailen arabera landu beharko dira lan edota kanpainak. Motibapen-kanpainak, mezu ideologikoa garatzeko, hau da, hizkuntz kontzientziaren osaketa eta lanketa. Ezagupen-kanpainak, euskalduntzea, alfabetatzea eta trebatzea garatzeko; helburu nagusia, hizkuntz transmisioaren segurtapena eta «corpus»aren egokitzea delarik. Eta azkenik, erabilpen-kanpainak, hizkuntzaren «status»aren normalizazioa eskuratzeko, hizkuntz funtzioen euskalduntzea garatzeko.

### **Beste faktoreak**

Amaitzeko, gure ihardueraren planifikazioa zehazterakoan, badago beste hainbat faktore eragiten duena herriaren kointuran eta oso kontutan hartu beharko duguna. Esate baterako, eta beste batzuren artean, honako hauek:



- Biztanlegoaren euskararekiko jarrerak
- Herriaren neurriak
- Herriaren historia
- Herriaren tradizioa euskalgintza lanetan
- Herri mugimenduaren egoera, historia, egituraketa, indarra
- Alderdi politikoen indar banaketa eta euskararekiko jarrerak
- Herria kokaturik dagoen zonaldearen status politiko-legala (euskara ofiziala den ala ez)
- Administrazioaren jarrera eta buruturiko lanak
- Eskualdea
- ...

Beraz, planifikazioa prestatzen hasten garenean kontutan hartuko dugu, lehenik, zein eremu territorialean aritu behar dugun lanean (udalerrria gure kasuan) eta zein herri-tipologian. Ondoren, eta kontutan harturik baita ere eragiten duten beste faktoreek, gure herriaren tipologiari eta errealitate koiunturalari dagozkien hizkuntz funtzioen arteko lehentasunezko sailkapena burutuko dugu, lehentasuna duten funtzio hauetan motibazio, ezagupena eta erabilpenerako eragipen-programa prestatu ahal izateko.

Ondorengo orrietan, tipologia bakoitzari zein funtzio-lehentasuna egokitu aztertzen dugu. Azterketa hau, beti ere, orokortasunean dago egina; hau da, gero herri bakoitzak kontutan hartu beharko ditu bestelako faktore propioak. Baina, hala ere, orientazio moduan lagungarria delakoan gaude.

#### **4. LEHENENGO TIPOLOGIA: HERRI ERABAT EUSKALDUNAK**

Lehenengo tipologiatako herri erabat euskaldun hauen lana, euskaraz biziko diren eremu geografikoak sortze eta konpaktatzea da. Euskaraz bizi diren herri hauek, euskaraz bizi daitekeela erakusteaz gain, Euskal Herriko gainerako tipologia guztietan eta maila guztietan ERAGIPEN-LANA burutuko dute.

\* MOTIBAPEN IDEOLOGIKOA: helburua, Euskal Herri euskalduna, pertsona elebidunak, herri elebakarra.

\* MOTIBAPEN PERTSONALA: euskaldun pasiboak hizkuntz-agente aktibo bihurtzea, egon daitezkeen beldur eta konplexuak gaindituz, pertsona horiengan konfidantza sortuz, hizkuntza pertsonaren eta egoera guztien behar guztietarako egokitu behar da, pertsonak euskaldunduz eta alfabetatuz.

\* ERAGIPEN FUNTZIONALA: euskaraz bizitzerakoan, derrigorrez eragipen berezia izango du hizkuntz funtzio desberdinetan, bai herri, eskualde eta nazio mailan.

#### **Lehentasunak**

##### **- Funtzio nazionalak: ERABAKIORRAK**

Funtzio nazionalak determinanteak dira, eta lau finkatu ditugu: administrazioa, irakaskuntza, lan mundua eta komunikabideak. Nola ez, funtzio nazional eta determinante hauen artean lehentasunak definitzerakoan desberdinak dira nazio mailan edo tipologia mailan definitzen baditugu, errealitate soziologikoa desberdina delako.

Hala nola, komunikabideen garrantzia lehen mailakoa izanik nazio mailan, ez dago herri txiki hauetan komunikabideen inguruko lan handiegirik egiteko aukerarik, komunikabide gehienak herri hauetatik kanpo bait daude.

Bestalde, irakaskuntzak nazio mailan lehentasun osoa izanik, herri hauetan gehienetan irakaskuntza zentzoko eredu euskalduna izanik, ez du lehentasun hori. Markatutako lau funtzio nazional eta determinanteen artean bik dute beraz herri hauetan lehentasun osoa: ADMINISTRAZIOAK eta LAN-MUNDUAK. Bi hauen artean zer esanik ez dago, administrazioak eskaintzen dituen posibilitateak ikusirik -publikoa eta nazionala- honi dagokio lehentasun osoa I. tipologian.

Hala ere, eta herriren batetan irakaskuntza mailan, oraindik ere arazoren bat egon daitekeela pentsatuz, irakaskuntza ere aipatu egingo dugu; ahaztu gabe helduen alfabetatzea landu egin behar dela, jende asko euskalduna izanik, analfabetoa baita bere lehen hizkuntzan.

#### 1.- Administrazioa

- Euskarazko funtzionamendua Udal mailan
  - \* Udal Ordenantzaren onarpena.
  - \* Plan teknikoaren prestakuntza
  - \* Plan teknikoaren garapena
- Euskarazko funtzionamendua herri mailan
  - \* Udal Ordenantzaren kale mailako aplikazioa
  - \* Plan teknikoen prestakuntza
  - \* Plan teknikoen garapena

#### 2.- Lan mundua

- Lan-munduaren barneko euskalduntzea
  - \* Planaren diseinua
  - \* Planaren garapena
- Lan-munduaren hizkuntz politika
  - \* Kanpoko hizkuntz politikaren diseinua

#### 3.- Irakaskuntza

- Euskarazko ereduaren orokortzea
  - \* Irakaskuntza
  - \* Zentruko funtzionamendua
  - \* Gurasoekiko harremanak
  - \* Hezkuntza sailarekiko harremanak

#### Alfabetatzea

- Euskaldun analfabetoak alfabetatu eta euskaraz funtziona dezaten auto-gorrotoak gaindituz.

- \* Alfabetatze plana
- \* Planaren garapena

### **- Funtzio sozialak: NAGUSIAK**

Hiru dira funtzio nagusien artean definitu ditugunak: kultur mundua, zerbitzu publikoena eta ludiko edo aisialdiarena. Hemen ere, nazio mailako lehentasunen aukera eta herri mailakoa ez da berdina. Kasu honetan, zerbitzu publikoek eskaintzen duten aukera ezin hobe da, gutxi direlako eta euskaldunak direlako gehienetan.

Bestalde, badago herri hauetan garrantzi handiko puntu bat. Hizkuntzaren "corpus"ari dagokionez, herri erabat euskaldunek (txikiak normalean) badituzte berezitasun batzu, beste herrietan askoz ere maila apalagoan gertatzen direnak:

- \* Hizkuntzaren potentzia beste inon baino handiagoa da, herri horietako bizitza soziala euskara hutsez ematen bait da (salbuespenak albait).
- \* Euskara da herri horietako herritar guztien (edo gehiengo handiaren) lehen hizkuntza eta hizkuntza bakarra kasuren batzutan.
- \* Hizkuntzaren gaitasuna eta aberastasuna inon baino hobeto gordetzen dute.

Baldintza horietan oinarrituz, esan dezakegu ezinbestekoa dela hizkuntzaren bizitasunerako gune horiek hizkuntzaren espazio sinbolikoaren funtzioa betetzea, euskal hiztunek erreferentzia modura izan dezaten herri horietako euskara. Herri horietako euskara, beraz, babestu, sustatu eta garatu egin behar da.

Badago, ordea, herri txiki horietako biztanle askoren artean hizkuntzarekiko gutxiespen-sentimendu bat, historikoki jasandako hizkuntz-errepresioarengatik eta hizkuntzaren egoera minorizatuak berak eragiten duen diskriminazioarengatik.

Garrantzikoa deritzogu, beraz, herri erabat euskaldunetako haur eta gazteei bereziki, kultur testuinguru zabal bat eskaintzeari, bai Euskal Herriko nola nazioarteko kultura beren euskal senaren galbahetik iragazi ondoren jaso eta gara dezaten.

Ezinbestekoa da, horretarako, irakaskuntza munduarekin, aisiarekin eta funtzio ludikoekin lotura estua izango lukeen programa bat antolatzea.

Hizkuntz lanketa berezia eskatzen du honek, haur eta gazteen hizkuntz-ezagupena behar linguistiko guztiak betetzeko adina izan dadin. Herri erabat euskaldunetako haur eta gazte horiek, beraz, hizkuntzaren eta hizkuntz-komunitatearen bihotz eta motore bilakatu behar dute, euskal kulturaren eragile.

Zentzu horretan, kultura unibertsala beregana dezaten ahalegin berezia egin behar litzateke, hizkuntzaren aldetik gaituenak direnez gero. Kultura unibertsaletik hartzaile izanik, kultura hori bertakotzeko funtzioa bete beharko lukete Euskal Herritik bertatik ere, euskal kulturatik emale izanik kultura unibertsalarekiko.

Era horretan, haur eta gazte horiek konplexu eta beldurrak uxatu eta hizkuntz harrotasuna eta konfidantza bereganatuko lituzkete. Euskarak, berriz, hizkuntza nazionalaren funtzio nagusia berreskuratuko luke, euskal nazioaren kultura eta identitatearen adierazpena izanik.

#### 1.- Zerbitzu publikoak

- Euskarazko funtzionamendua
  - \* Planaren diseinua
  - \* Planaren garapena

#### 2.- Ludikotasun kulturala

- Euskaraz burutzea
  - \* Planaren diseinua
  - \* Planaren garapena

## **- Funtzio afektiboak: PERTSONALAK**

Bi ikusten ditugu: familia eta lagunartea. Herri hauetan, ezinbesteko garrantzia du familiaren hizkuntz transmisioak, transmisio honek garantiza bait dezake zonalde euskaldunen iraupena. Famili transmisio honek eragin zuzena du lagunarteko erabilpen mailan ere.

### 1.- Famili transmisioa

- %100ean transmisioa ongi garatzea

\* Sensibilizazio-kanpainak

## **5. BIGARREN TIPOLOGIA: HERRI EUSKALDUNAK**

Bigarren tipologiako herri euskaldun hauen lana, euskaraz biziko diren eremu geografikoak epe laburrean osatzea eta herri erabat euskaldunekin bat egitea, zonalde konpaktoak zabalduz eta, erdi epean, ahal den neurrian, ukipenaren arazoa fronte erara antolatzen laguntzea da. Neurri handi batez, herri hauek, epe ertainera euskaraz bizi daitekeela erakustez gain, Euskal Herriko gainerako tipologia guztietan eta maila guztietan ERAGIPEN-LANA burutuko dute.

\* MOTIBAPEN IDEOLOGIKOA: helburua, Euskal Herri euskalduna, pertsona elebidunak, herri elebakarra. Bestetik, pertsona elebakar erdalduna ez da, herri oso batek kolektiboki hartu duen euskaraz bizitzeko erabakia frenatuko duena, baldin eta pertsona hauek euskaldundu daitezen bitarteko guztiak jartzen badira. Bide horretan, erdaldungo kopuru txiki honen udalak eta udalerriak euskaraz funtzionatzearen aldeko jarrera publikoa lortu behar da: "guk, arrazoi historikoengatik euskara ikasteko aukerarik izan ez dugunok, ez gara gure herriak euskaraz bizitzeko hartu duen erabakiari freno jarriko diogunak izango. Eta beraz, herri honek hartu duen euskaraz bizitzeko erabakiaren alde publikoki azaldu nahi dugu, bide batez, gu euskaldundu gaitezen udalak bitarteko guztiak jarri dituela adieraziz"

\* MOTIBAPEN PERTSONALA: euskaldun pasiboak euskaldun konprometitu bilakatzea. Horretarako auto-gorrotoa gainditzea, euskaldunen alfabetatzea. Bestetik, herri hauetan dagoen erdaldungo-kopuru txikia euskaldundu dadin bitartekoak jartzeaz gain, ahalegin berezia burutu beharra dago.

\* ERAGIPEN FUNTZIONALA: euskaraz bizitzerakoan derrigorrez eragipen berezia izango du hizkuntz funtzio desberdinetan, bai herri, eskualde eta nazio mailan.

### **Lehentasunak**

#### **-Funtzio nazionalak: ERABAKIORRAK**

Funtzio nazionalak determinanteak dira, eta lau finkatu ditugu: irakaskuntza, administrazioa, lan mundua eta komunikabideak. Nola ez, funtzio nazional eta

determinante hauen artean lehentasunak definitzerakoan, desberdinak dira nazio mailan edo tipologia mailan definitzen baditugu, errealitate soziologikoa desberdina delako.

Hala nola, komunikabideen garrantzia lehen mailakoa izanik nazio mailan, ez dago herri txiki hauetan komunikabideen inguruko lan handiegirik egiteko aukerarik, komunikabide gehienak herri hauetatik kanpo bait daude.

Bestalde, irakaskuntzak nazio mailan lehentasun osoa izanik, herri hauetan, baldin eta irakaskuntz eredu euskalduna bada, ez du arlo honek nazio mailan duen lehentasunik, nahiz eta bere lehentasuna mantendu helduen euskalduntzeak eta alfabetatzeak. Markatutako lau funtzio nazional eta determinanteen artean bik dute, beraz, herri hauetan lehentasun osoa: administrazioak eta lan munduak. Bi hauen artean zer esanik ez dago, administrazioak eskaintzen dituen posibilitateak ikusirik -publikoa eta nazionala- honi dagokio lehentasun osoa II. tipologian.

#### 1.- Administrazioa

- Euskarazko funtzionamendua udal mailan, beti ere, euskaraz ez dakienaren gaztelera erabilzeko eskubide pertsonala errespetatuz.

- \* Udal Ordenantzaren onarpena
- \* Plan teknikoaren prestakuntza
- \* Plan teknikoaren garapena

- Euskarazko funtzionamendua herri mailan.

- \* Udal Ordenantzaren kale mailako aplikazioa
- \* Plan teknikoaren prestakuntza
- \* Plan teknikoaren garapena

#### 2.- Lan mundua

- Lan-munduaren barne-komunikazioen euskalduntzea

- \* Planaren diseinua
- \* Planaren garapena

- Lan-munduaren hizkuntz politika

- \* Kanpoko hizkuntz politikaren diseinua



### 3.- Irakaskuntza

- Euskarazko ereduaren orokortzea
  - \* Irakaskuntza
  - \* Zentro funtzionamendua
  - \* Gurasoekiko harremanak
  - \* Hezkuntza sailarekiko harremanak

#### - Helduen euskalduntzea alfabetatzea

Euskaldun analfabetoak alfabetatzea, euskaraz funtziona dezaten eta auto-gorrotoa gaindi dezaten.

- \* Alfabetatze-plana
- \* Planaren garapena

Tipologia hauetan, famili transmisioa zaintzeak, erdaldun-kopuru txiki hori euskalduntzeak eta euskaldunen alfabetatzeak lehen mailako garrantzia dute.

Bigarren lehentasuna du tipologia honetan herri hauetan egon daitekeen erdaldun-kopuru txiki horretako sektore errekalzitranteen berreuskalduntzearen kontrako eraso neutralizatzea. Lehentasun nagusienetakoa da era berean, euskal komunitatean integratu nahi duten erdaldunei bideak jartzea, bitartean, euskaldunak euskaraz bizitzen has daitezkeen alfabetatu behar direlarik.

#### - Funtzio Sozialak: NAGUSIAK

Hiru dira funtzio nagusien artean definitu ditugunak: kultur mundua, zerbitzu publikoena eta ludiko edo aisialdiarena. Hemen ere, nazio mailako lehentasunen aukera eta herri mailakoa ez da berdina; kultur mundukoak lehen mailako garrantzia izanik, herri txiki hauetan ez bait du halako garrantzirik. Aldiz, zerbitzu publikoenak eskaintzen duen aukera ezin hobea da, gutxi eta nahiko euskaldunak direlako gehienetan.

## 1.- Zerbitzu publikoak

- Euskarazko funtzionamendua, beti ere, euskaraz ez dakienaren gaztelera erabiltzeko eskubide pertsonala errespetatuz.

- \* Planaren diseinua
- \* Planaren garapena

## 2.- Ludikoa eta aisialdia

- Euskaraz burutzea, beti ere, euskaraz ez dakienaren gaztelera erabiltzeko eskubide pertsonala errespetatuz.

- \* Planaren diseinua
- \* Planaren garapena

### - Funtzio afektiboak: PERTSONALAK

Bi ikusten genituen: familia eta lagun artea. Herri hauetan ezinbesteko garrantzia du familiaren hizkuntz transmisioak. Tansmisio onak ziurta bait dezake zonalde euskaldunen mantenimendua, eta horretarako ezinbestekoa da zonalde hauetan oraindik ematen den konplexua eta beldurra gainditzea, euskaldunak auto-gorrotoa gaindituz bere buruarengan konfidantza har dezan. Horrela lor daiteke famili transmisioa ziurtatzeaz gain, lagun arteko giroa euskaldun mantentzea.

## 1.- Famili transmisioa

- %100ean transmisioa ondo garatzea

- \* Sensibilizazio-kanpainak
- \* Kanpainen garapena
- \* Kontrola

## 2.- Euskal komunitatean integratu nahi duen erdaldungoari bitartekoak ekaintzea.

- \* Sensibilizazio-kanpaina
- \* Euskalduntzeko bitarteko onak dohain eskaintzea
- \* Plan pertsonalizatuak bideratzea, bitarteko horietaz balia daitezen.

**6.- HIRUGARREN/LAUGARREN TIPOLOGIA:  
HIRIBURUAK ETA HERRI ERDALDUNDUAK**

Hiru eta laugarren tipologietako hiriburu eta herri erdaldundu hauen lana bikoitza da. Alde batetik, euskaraz biziko diren eremu geografikoak epe ertainera osatzea eta herri erabat euskaldunekin bat egitea da, zonalde konpaktoak zabalduz eta, epe luzeagoan, ahal den neurrian, zonalde konpakto erdaldunaren homogenotasun geografikoa haustea, herri erabat erdaldunduen euskararen aldeko dinamika bultzatuz. Bestetik, giza-funtzio nagusi eta amankomunak hiri hauetan ematen dira, administrazio nagusia komunikabideak, kulturgintza, gizazerbitzuak,... hiri hauek osatzen bait dute pisu politiko, demografiko eta ekonomiko handien duen lurraldea.

Azkenik, euskaraz bizi diren herriei eta euskalduntzen hasi berriak direnei kobertura politikoa eman behar diete hiri hauek. Ildo horretan, tipologia hauetako hirien lan nagusia ERAGIPEN POLITIKO-IDEOLOGIKO ETA FUNTZIONALA izango da.

\* MOTIBAPEN IDEOLOGIKOA: helburua, Euskal Herri euskalduna, pertsona elebidunak, herri elebakarrak eta elebidunak. Prozesu bakarra, helburu bakarra baina prozedura mailakatua. Kobertura politiko-ideologikoa.

\* MOTIBAPEN PERTSONALA: euskaldun pasiboak euskaldun konprometitu bilakatzea, hauen kopuru kuantitatiboa handia izanik, presio soziala sor dezaketelako. Bestalde, helduen euskalduntze alfabetatzeak garrantzi berezia du, zerbitzu elebidunen eskaintzak langile elebidun espezializatuak eskatzen bait ditu. Erantzun hau benetakoa izan dadin, bitartekoak jartzeaz gain, ahalegin berezia burutu beharra dago tipologia hauetan.

\* ERAGIPEN FUNTZIONALA: euskaraz bizitzea edo elebidunez bizitzea erabaki duten herrien aukera errespetatzeko, funtzio desberdinetan, aurrerapauso nabarmena eman beharko da, herri hauetako hainbat zerbitzu amankomunak diren neurrian.

## Lehentasunak

### **- Funtzio nazionalak: ERABAKIORRAK**

Hiru nabarmendu ditugu hiriburu eta hiri handi hauetarako: irakaskuntza, administrazioa eta lan-mundua. Komunikabideena, hala nola irakaskuntza eta administrazio mailan egon daitezkeen unibertsitate edo izaera orokorreko administrazio zerbitzuak, udalerrri maila gainditzen dutenez, atal hauetatik kanpo utzi ditugu, nahiz eta, dagoen ahalmenaren arabera horietan ere eragitea garrantzitsua izan.

Bestalde, irakaskuntzak lehentasun osoa du tipologia hauetan, Zonalde hauetan ematen da haur -eta guraso- kontzentrazio handiena eta, beraz, haur eta helduen irakaskuntzek lehen mailako garrantzia dute tipologia honetan.

Ildo beretik, markatutako lau funtzio erabakiorren artean, administrazioa aipatuko dugu. Normalean, tipologia honetan hiri handiak edo hiriburuak sartzen direla kontutan izanik, administrazioaren neurria izugarri handia da eta euskararen normalkuntza administratiboak dituen arazo eta konplexutasun guztiak administrazio-mota honetan eman eta konpondu beharko dira.

Bestalde, famili transmisioaz gain, helduak euskaldundu eta alfabetatu daitezten bitartekoak jarri behar dira. Tipologia hauetan "zerbait" dakitenen kopurua alde batera edo bestera jotzeak, euskalduntze-prozesu osoa bideratu edo hipotekatu dezakeelako. Azkenik, euskal komunitatean integratu nahi dutenei bideak jarri behar zaizkie, eta bitartean, euskaldunak euskaraz bizitzen hasi presio soziala handitzeko oinarri gisara.

Lan-munduari dagokionez, oso garrantzitsua izanik, gaurko egoeran ezer gutxi burutu daiteke funtzio determinante honetan, enpresak handiegiak direlako eta bertan ematen den euskaldunen kontzentrazioa edo hauen demanda txikiegia delako

#### 1.- Irakaskuntza

- Irakaskuntz mota ezberdinetan euskarazko eredua orokortu eta zentroen funtzionamendua euskaldundu.

- \* Plan teknikoaren diseinua
- \* Plan teknikoaren garapena eta kontrola
- \* Presio sozialaren planifikazioa
- \* Planifikazioaren aplikapena
- Helduen euskalduntze eta alfabetatzea
  - Zerbait dakitenen kopuruak euskaldungora jo dezan.
  - \* Plan teknikoaren diseinua
  - \* Plan teknikoaren garapena
  - \* Presio sozialaren planifikazioa
  - \* Planifikazioaren aplikapena
- Euskal komunitatean integratu nahi duen erdaldungoari bitartekoak eskaintzea.
  - \* Sensibilizazio-kanpaina
  - \* Euskalduntzeko bitarteko onak dohain eskaintzea

## 2.- Administrazioa

- Elebitasun normalizatailean oinarritutako udal funtzionamendua, beti ere, euskaraz eskatzen duenaren eskubide pertsonala errespetatuz.
  - \* Udal Ordenantzaren onarpena
  - \* Plan teknikoaren prestakuntza
  - \* Plan teknikoaren garapena
- Elebitasun normalizatailean oinarritutako udalaren funtzionamendua herri mailan.
  - \* Udal Ordenantzaren kale mailako aplikazioa
  - \* Plan teknikoaren prestakuntza
  - \* Plan teknikoaren garapena
- Instituzioen arteko harremanei dagokienez, euskaraz bizitzea erabaki duten herrien borondatea errespetatua izan dadin, hauekiko harremanak euskaraz burutzea.
  - \* Udal Ordenantzaren onarpena
  - \* Plan teknikoaren garapena

Guzti honi begira, presio sozialaren planifikazioa eta planifizio honen aplikapena.

Lan-munduan aukera gutxi badago ere, zerbait egiten hastekotan, kanpora begirako hizkuntz politika diseinatu eta aplikatu beharko litzateke.

### **- Funtzio sozialak: NAGUSIAK**

Hiru dira funtzio nagusien artean definitu ditugunak: kultur mundua, zerbitzu publikoena eta ludiko edo aisialdiarena. Hemen ere, nazio mailako lehentasunen aukera eta herri mailakoa desberdina da.

Kultur mundukoak lehen mailako garrantzia du, hiriburuetan edo hiri handi hauetan ematen den kultur produkzioa nazio mailan barreiatzen bait da. Bestal de, gauza bera gertatzen da arlo ludiko edo aisialdiarenarekin, tipologia hauetan garrantzi handia du, askotan eskualde, herrialde edo nazio mailara zuzendutako zerbitzuak bait dira. Azkenik, zerbitzu publikoak bi eratakoak daude, eskualde, herrialde edo nazio mailari zuzendutakoak eta herriari begira daudenak. Hauen artean, handienak direlako, horretarako bitartekoak dituztelako eta efektu biderkatzaile handia dutelako, eskualde, herrialde edo nazio mailara zuzendutako zerbitzu publikoek dute lehentasuna. Horrek ez du esan nahi herrira begira daudenak alde batera utzi behar direnik.

#### 1.- Kultur mundukoak

- Kultur produkzioa eta eskaintza euskarazkoa edo elebiduna izan dadin, behar diren bitartekoak jartzea.
  - \* Plan teknikoaren diseinua
  - \* Plan teknikoaren garapena eta kontrola
  - \* Presio sozialaren planifikazioa
  - \* Planifikazioaren aplikapena

#### 2.- Ludikoa eta aisialdia

- Euskaraz edo elebitasun normalizatzailean burutzea, beti ere, euskaraz eskatzen duenari eskubide pertsonala errespetatuz.
  - \* Planaren diseinua
  - \* Planaren garapena

- \* Presio sozialaren planifikazioa
- \* Planifikazioaren aplikapena

### 3.- Zerbitzu publikoak

- Euskeraz edo elebitasun normalizatzailean oinarritutako funtzionamendua, beti ere, euskaraz eskatzen duenaren eskubide pertsonala errespetatuz.
  - \* Planaren diseinua
  - \* Planaren garapena
  - \* Presio sozialaren planifikazioa
  - \* Planifikazioaren aplikapena

### - Funtzio afektiboak: PERTSONALAK

Bi ikusten genituen: familia eta lagun artea. Hiriburu edo hiri hauetan ezinbesteko garrantzia du familiaren hizkuntz transmisioak. Transmisio honek garrantzia bait dezake euskaldunen kopuruaren mantenimendua eta etorkizuneko igoera.

#### 1.- Famili transmisioa

- %100en transmisioa ongi garatzea
  - \* Sensibilizazio-kanpainak
  - \* Kanpainen garapena eta kontrola
  - \* Presio sozialaren planifikazioa
  - \* Planifikazioaren aplikapena

## **7.- BOSTGARREN TIPOLOGIA: HERRI ERABAT ERDALDUNDUAK**

Bostgarren tipologiako herri erabat erdaldundu hauetan burutu beharreko lana euskararekiko erretxazoa neutralizatzea eta euskararen presentzia sortzen hastea da. Zalantzarik gabe gaztelera hutsez bizi diren herri hauek, epe ertainera euskararekiko eta euskaldunekiko errezeloa gainditzeaz gain, euskararen erabilpena onartu behar dute, Euskal Herria euskalduntzeko prestatu den plan zabal baten partaide direla ikusiz. Kasu askotan prebilinguismo fasean egongo dira eta abertzaletasunaren kontzientzia politikoa nahikoa minoritarioa izango da gehienetan. Lana, ondo eta poliki egin behar da herri hauetan.

\* MOTIBAPEN IDEOLOGIKOA: helburua, euskara eta abertzaletasunarekiko erretxazoa eta errezeloa gainditzea. Euskal Herria euskalduntzeko plan zabal baten partaide direla ikus araztea. Euskara ikastea komunitatearen integrazio positiboa lortzeko aukera zabaltzea dela ikustea. Euskararen alde egotea ez dela gaztelaren aurka egotea. Elebitasun soziala printzipio demokratikoa eta elebitasun pertsonala aberastasuna direnaz jabetzea. Haurrek etorkizunean hizkuntz arazorik izan ez dezaten bitartekoak gaurtik jartzeak duen garrantziaz ohartzea.

\* MOTIBAPEN PERTSONALA: bi mailatakoa da helburua. Beren haurrak euskalduntze- prozesutik abiatu araztea batetik, eta beraiek euskalduntze prozesuan hasia bestetik. Horretarako, Hizkuntz kontzientziaren berreskurapena landuko da motibazio-kanpainen bidez, eta bereziki prestatutako mezuen bidez, herritar guztiek euskara beren nortasunaren atal propio bezala har dezaten lortu, horretarako memoria historikoa bideratuz. Maila honetan garrantzi handikoa da euskal kulturaren alor desberdinen berri ematea, ikuskizunak antolatzea e.a. kultura eta folklorea herri eta hizkuntz memoria berreskuratzeko tresna bezala erabiliz.

\* ERAGIPEN FUNTZIONALA: gaztelarak herri hauetako funtzio guztietan duen monopolioa hausten hasia da helburua, besterik ez bada euskararen presentzia idatziarekin hasita.



## Lehentasunak

### **- Funtzio nazionalak: ERABAKIORRAK**

Funtzio nazionalak erabakiorrak dira, eta lau finkatu ditugu: irakaskuntza, administrazioa, lan mundua eta komunikabideak. Komunikabideen garrantzia lehen mailakoa izanik nazio mailan, ez dago herri txiki edo ertain hauetan komunikabideen inguruko lan handiegirik egiteko aukerarik.

Bestalde, lan-munduak nazio mailan lehentasun osoa izanik, herri hauetan ia inork euskararik ez dakienaz oharturik ez du lan-arloak nazio mailan duen lehentasun berdina.

Markatutako lau funtzio nazional eta erabakiorren artean bik dute, beraz, herri hauetan lehentasun osoa: administrazioak era irakaskuntzak. Bi funtzio hauek elkar eragingo dute eta elkar osagarri izan daitezke.

Bestalde, herri bakoitzaren egoerak aginduko du zein alorretatik hasi behar den, beti ere kontutan izanik administrazioan giro egokia baldin badago, bera euskalduntzen ahalegindu behar dela eta, alderantziz, irakaskuntza mailan posibilitaterik badago eta administrazioan ez, ikastetxeetatik presiona daitekeela eta beraietatik abiatu kontzientziate-lana.

Dena dela, azpimarratu behar dugu zonalde minorizatueta instituzioen jarrerak eta praktikak lehen mailako garrantzia dutela.

#### 1.- Administrazioa

- Elebitasun orekatua eskuratzeko lanean hasi, eta batez ere, euskararen presentzia idatziaren alorrean.
  - \* Udal Ordenantzaren onarpena
  - \* Plan teknikoaren prestakuntza
  - \* Plan teknikoaren garapena
  
- Elebitasun orekatuaren presentzia herri mailan
  - \* Udal Ordenantzaren kale mailako aplikazioa
  - \* Plan teknikoen prestakuntza
  - \* Plan teknikoen garapena

## 2.- Irakaskuntza

- Euskarazko eredurako bidean, eredu misto errefortzatuak sortzea eta gurasoek haurrak bertan matrikula ditzaten sentsibilizazio kanpaina instituzional eta herritarrak etengabe burutzea.

- \* Planaren diseinua
- \* Planaren garapena

- Elebitasun orekatua irakaskuntz zentroan

- \* Presentzia idatzia
- \* Zentruko funtzionamendua
- \* Gurasoekiko harremanak
- \* Hezkuntza sailarekiko harremanak

Herri hauetan gurasoen euskararen aldeko jarrerak garantiza dezake etorkizunean bideratu behar den berreuskalduntze sozialaren oinarria gaurtik sortzen hastea ala ez.

Bestalde, gurasoen jarrera haurrengan hobetzeaz gain, berengan euskara ikasteko beharra sortu behar da, sektore errekalzitrateen berreuskalduntzearen kontrako eraso neutralizatuz.

- Gurasoen haurren euskalduntzearekiko jarrera positibatzea

- Irakaskuntz zentruetan euskarazko ereduak edo eredu misto errefortzatuak sortzea, eta gurasoek haurrak bertan matrikulatzea.

- \* Sentsibilizazio-kanpainak
- \* Kanpainen garapena
- \* Kontrola

- Haurrak ezezik, gurasoak ere euskaldundu daitezen.

- \* Sentsibilizazio-kanpainak
- \* Kanpainaren garapena
- \* Kontrola

## **- Funtzio sozialak: NAGUSIAK**

Hiru dira funtzio nagusien artean definitu ditugunak: kultur mundua, zerbitzu publikoena eta ludiko edo aisialdiarena. Hemen ere, nazio mailako lehentasunen aukera eta herri mailakoa ez da berdina. Kultur mundukoak lehen mailako garrantzia izanik, herri txiki hauetan ez bait du halako garrantzirik. Aldiz, zerbitzu publikoen alorrean ezer bideratzea oso zaila da, zerbitzuko langileek ezezik, herritar gehienek ez bait dakite euskararik. V. tipologiako herri hauetan mundu ludiko edo aisialdiarenak du izugarrizko garrantzia, eta batez ere gazteei zuzendutakoak.

### 1.- Aisialdiaren mundua

- Euskarazko presentzia eta euskarazko funtzionamendua bideratzea, beti ere, euskaraz dakitenek eta ez dakitenek euskara erabil dezaten bitartekoak jarritz.
- \* Planaren diseinua
- \* Planaren garapena

### 2.- Zerbitzu publikoak

- Euskararen presentzia publikoa sortu eta handiagotu dadin lan egitea.
- \* Planaren diseinua
- \* Planaren garapena.

## **- Funtzio afektiboak: PERTSONALAK**

Bi ikusten genituen: familia eta lagun artea. Herri hauetan ezinbesteko garrantzia du gurasoen jarrerak, beren eskuetan bait dago haurra euskal eredu batetan matrikulatzeko posibilitatea.

### 1.- Euskal komunitatean integratu nahi duen erdaldungoari bitartekoak eskaintzea

- \* Sentsibilizazio-kanpaina

## **8.- PLANIFIKAZIORAKO METODOLOGIA ETA URRATSAK**

Gaurdaino, eta orokorrean harturik, euskararen normalizazioaren helburuarekin herri mailan bideratu diren ahaleginak, erakunde sektorialek antolaturiko ekintza solteetara edo zenbait une puntualetan antolaturiko ekintza bateratuetara mugatu izan ohi dira.

Baina, gure hizkuntzaren normalizaziora iritsi nahi badugu, ezinbestekoa da ekintza solteen dinamika gainditu eta programazio artikulatu, koordinatu eta errazionaletarantz jotzea.

Ezin ditugu indarrak alferrik galdu. Zerbait egiten dugunean, beraz, jakin beharra daukagu zertarako egiten dugun, zein prozesutan eta prozesuaren zein puntutan kokatzen den ekintza hori eta, amaitu ondoren, ea nahi genuena lortu den. Hau da, ekintzek programa batetan kokaturik egon behar dute eta neurgarriak izan. Gure iharduera ahalik eta etekin gehien ateratzeko antolatu behar dugu, une bakoitzean zertan ari garen eta non gauden jakin dezagun.

### **Lehen pausua: Gune eragilearen sorketa**

Herri mailako berreuskalduntze edota normalizazio-prozesu osoaren aintzindari izango den, lan hori bideratuko duen eta herri osoaren aurrean eragile bihurtuko den oinarritzko antolakuntza osatu beharra dago.

Gure ahaleginak indar biderkatzaile bihurtu daitezten, euskaldungoaren (euskaltzaleen) ahalik eta konpaktazio eta antolakuntza maila sendoena lortzea izango da beti ere gure lehen lana.

Herri tipologia eta koiuntura ezberdinen arabera, antolaketa hau formaz aldatuko da herri batetik bestera, baina kasu guztietan giza sektore eta erakunde gehien biltzen saiatuko da.

Horrela, kasu batzutan pertsona partikular batzuren kezka eragindako bilkura horretatik sorturiko lan-taldeen egitura izan daiteke herri bateko normalizaziorako gune eragilea. Besteetan berriz, kultur eta euskalgintzarako erakundeen arteko bilkura daiteke izan gune eragile hori.

Dena den, garrantzitsua da hasiera-hasieratik garbi edukitzea zein den sortu dugun bilkura honek osatzen duen egitura-mota eta zeintzu diren bere funtzioak.

1991ko urtarrilean EKBk Zarautzen antolaturiko «Herrietako Euskara Taldeen Ihardunaldi»etako ondorioetan azaltzen den bezala:

- «- Iraunkortasuna eta eraginkortasunari begira, 'kanpanitis' eta 'ekintzategi' izateari uzteko, antolakuntza mota egokitzat hartzen du Elkartearena, honek lor dezakeen azpiegituragatik.
- Honek posibilitatuko du sektore ezberdinen arteko koordinaziorako erreferentzigune sendoa lortzea.
- Aurrean esandakoak ez du kentzen bestelako egituraketa motak aurrera eramatea, lekuan lekuko ezaugarriak direla medio.
- Antolaketa mota hauek ideologi eta sektore ezberdinetako euskaltzaleen topagune izan behar dute.
- Zabaltasunak ez du inolaz ere esan nahi euskararen normalkuntzarako behar diren minimoen azpitik jokatu behar denik.
- Aipaturiko normalkuntza hau lortzeko Plangintza dugu tresna metodologikoa, herri bakoitzaren ezaugarriei egokiturik landu beharrekoa, beti ere, kopiatze errezean erori barik.»

### **Bigarren pausua: Datu orokorren bilketa**

Gure lanari ahalik eta etekin gehien ateratzeko, komenigarri da non ari garen ezagutzea, hau da, herriari buruzko ahalik eta datu gehien erabiltzea.

Garrantzitsua da oinarrizko datuen bilketa, zeren eta lehentasunen aplikapena desberdina izan bait daiteke herri bakoitzaren egoera soziologiko, linguistiko, ekonomiko, demografiko etabarren arabera. Horregatik, ezertan hasi aurretik ezinbestekoa da oinarrizko datu horiek jasotzea.

Ondoren, eta lanak ezarriko dizkigun beharren aginduz, beste hainbat datu zehatzago ere jaso beharko dugu. Hasieran jasoko diren datuak:

- Biztanle-kopurua
- Biztanlegoaren euskararen ezagutza
- Adin-taldeak eta bilakaera demografikoa
- Administrazioako langile-kopurua eta euskara maila
- Eskola-kopurua
- Ikasle-kopurua eta banaketa
- Euskarazko irakaskuntza
- Produkzio-sektoreak
- Lantegi-kopurua
- Merkatal establezimenduak
- Beste zerbitzuak
- Kultur erakundeak
- Hizkuntzaren statusa: ofiziala ala ez
- Administrazioaren jarrera eta buruturiko lanak
- Biztanlegoaren euskararekiko jarrerak
- Herriaren tradizioa euskalgintza lanetan
- Herri mugimenduaren egoera, historia, egituraketa, indarra
- Alderdi politikoen indar banaketa eta euskararekiko jarrerak

### **Hirugarren pausua: Lehentasunen zehaztapena**

Gure iharduera logika baten barruan kokatu nahi badugu, hizkuntz funtzioak klasifikatu eta sailkatu behar ditugu, bakoitzaren garrantzia neurtu eta, herri tipologia ezberdinen arabera, funtzio hauen arteko lehentasunak zehaztu. (Ikus liburu honen aurreko atala)

Ondoren, eta tipologia berdinekoak izan arren, herri bakoitzaren koiunturaren aldaketak ezartzen dituen baldintzetara egokitu behar dira lehentasunak.

Lehentasun hauen fikapenean lagungarri izan daiteke honako galdera metodologiko hauek jarraitzea:

—» 1.- Hona hemen hizkuntz funtzio nagusien zerrenda. Zehaztu itzazu alboko karratuan zure herriari dagozkion azpifuntzioak.

HIZKUNTZ FUNTZIOA	AZPIFUNTZIOAK	
Irakaskuntza	1. 2.	3. 4.
Administrazioa	1. 2.	3. 4.
Komunikabideak	1. 2.	3. 4.
Lan mundua	1. 2.	3. 4.
Kultur mundua	1. 2.	3. 4.
Zerbitzu publikoak	1. 2.	3. 4.
Ludiko/aisialdia	1. 2.	3. 4.
Familia	1. 2.	
Lagun artea	1. 2.	

—» 2.- Aukera itzazu hiru azpifuntzio, zure herrian duten garrantzia kontutan hartuta. Arrazoitu aukera horren zergatiak.

### 1. Azpifuntzioa

1. Arrazoa
2. Arrazoa
3. Arrazoa

### 2. Azpifuntzioa

1. Arrazoa
2. Arrazoa
3. Arrazoa

### 3. Azpifuntzioa

1. Arrazoa
2. Arrazoa
3. Arrazoa

—» 3.- Har itzazu azpifuntzio hauek eta azter ezazu nolako den euskararen egoera bere esparruan betiko hiru arlori jarraiki: motibapena, ezagupena eta erabilpena. Egoeraren deskribapena egiterakoan, saiatu zergatiak azaltzen.

### Deskribapena

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.



Arrazoiak/zergatiak

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.

**Laugarren pausua: programaketaren osaketa**

Jakina da aipaturiko guztia kanpaina programatu batzuren bidez aurrera eraman beharko dela. Kanpaina programatuak esaten denean, elkarrekin artikulatuak eta jarraian kontrolatuak esan nahi dugu.

Izan ere, lan hauetan kanpaina solteak eta puntualak egiteko arriskua izaten da, eta arrisku horretan ez erortzeko neurriak hartu behar dira, hau da, iharduera programak finkatu behar dira. Iharduera-programek jasoko dute:

0. Funtzioa
1. Azpifuntzioa
2. Helburu orokorrak
3. Egoera
4. Helburu zehatzak
5. Iharduera-atalak
  - 5.1. Helburu operatiboak
  - 5.2. Ekintza-programa
    - 5.2.1. Bitartekoak
    - 5.2.2. Faseak
    - 5.2.3. Iraupena
    - 5.2.4. Egutegia
    - 5.2.5. Ardura
    - 5.2.6. Aurrekontua
  - 5.3. Emaitzen ebaluaketa

## *0. Funtzioa*

Lantzeraz goazen hizkuntz funtzio zehatza. Hau da, lehenatasun atalean definitu ditugun horietako bakoitza.

### *1. Azpifuntzioa*

Emaitzarik gabeko orokortasunean galdu nahi ez badugu eta egindakoaren ondorioak neurtu nahi baditugu, eragin nahi dugun funtzio hori esparru identifikagarrietan zatikatu behar dugu.

Hau da, lehen aipatu ditugun hizkuntz funtzio horietako bakoitza azpifuntzio ezberdinez osaturiko gauza konplexu bat da. Beraz, halako funtzio batengan eragin nahi badugu, ezagutu eta zehaztu behar ditugu funtzio horren baitan suertatzen diren azpifuntzioak. Lanerako errazago eta emaitzen aldetik eraginkorragoa baita esparruz esparru aritzea, orokortasunaren konplexutasunean indarrak alferrik galdu beharrean.

Hizkuntzaren gizarte-funtzioak azaltzen ditugun liburu honen atalean, funtzio bakoitzaren azpifuntzioen deskribapen orokorra egiten dugu. Horietaz gain, herri bakoitzak bere azpifuntzio bereziak edukiko ditu, programaketa hau egiterakoan definitu beharko direnak.

### *2. Helburu orokorrak*

Aukeratu dugun hizkuntz funtzio horren baitan definitu ditugun azpifuntzioei dagozkienak egoera normalizatura iristeko. Hau da, ez berehala lor dezakeguna, euskara bizi dadin ezinbestekoak direnak baizik.

### *3. Egoera*

Azpifuntzioaren egoera zehatza ezagutzea dugu programaketaren hurrengo pausoa. Hasieran herriaren datu orokorrak jaso ditugu, lehen hurbilketarako diagnosi moduko bat eduki asmoz: orain, berriz, azpifuntzioa zuzenean eta sakonki aztertu nahi dugu, ondoren helburu zehatzak, ekintzak, e.a. egokiak aplikatu ahal izateko.

#### 4. Helburu zehatzak

Azpifuntzioaren egoera ezagutu ondoren, eta beti ere gure ahalmenak kontutan harturik, epe motzean azpifuntzio honetan lortu nahi dugunaren finkapena.

#### 5. Iharduera-atalak

Gure lanaren unitate txikiena. Azpifuntzio bakoitza ere atal ezberdinez osaturik dago. Garrantzitsua da atal hauek identifikatzea eta bereiztea, aukeraketa egin ondoren urteko programa egokiak aplikatu ahal izateko. Iharduera-atalak, beraz, aurten gure programan landuko ditugun atal edota arlo zehatzak dira.

Aurtengo lanerako iharduera-atal hauen aukeraketa egiten dugunean zein alorrekoak diren zehaztuko dugu. Hau da, iharduera-atal horietariko bakoitzean motibazioa, ezaguera edota erabilera landuko dugun.

##### 5.1. Helburu operatiboak.

Iharduera-atal zehatz bakoitzean AURTEN lortu nahi dugunaren finkapena. Helburu horiek lorgarriak izan behar dute (ez dezagun listoia goregi jarri eta gero frustrazioan erori iristen ez garelako) eta urte batetik bestera progresioa finkatzeko modukoak.

##### 5.2. Ekintza-programa

Hau da, finkatu ditugun helburuak betetzeko egoki diren ekintzak eta bestelako betebeharrak.

- **Bitartekoak:** Ezarritako helburu operatiboak lortzeko behar izango diren bitartekoak, pertsona nahiz materialak (jendea, publizitatea, azpiegitura,...)

- **Ekintzaren faseak eta iraupena:** aukeratu dugun ekintza bakoitzak betetzen dituen fase ezberdinen adierazpena eta hauen nahiz ekintza osoaren iraupena.

- **Egutegia:** Ekintzaren fase bakoitza zein data zehatzetan beteko den adieraztea.

- **Ardura:** Kasu gehienetan "denok eta inor ez" gauza bera gertatzen denez, garrantzitsua da garbi uztea iharduera-atal bakoitzaren ardura noren eskuetan gelditzen den (pertsona, lan- taldea, batzordea,...)

- **Aurrekontua:** ekintza-programa osoaren kostuaren azalpena.

### 5.3. Eraitzen ebaluaketa

Gure lanak emaitza egokiak ematen dituen ala beste bideren bat jorratu behar dugun jakin ahal izateko, ezinbesteko dugu iharduera-atal ezberdin bakoitzean ebaluaketa-sistema egokiak erabiltzea eta ondorioak neurtzea. Horrela, hasieran jarritako helburua bete eta egoera aldatu den ala ez jakin eta hurengo programaketaren norabideak ezagutuko ditugu.

### **Bostgarren pausua: Urteko "planning" a**

Behin landu behar ditugun aplikazio-esparruak aukeratu eta iharduera-atalak identifikatu ondoren eta bakoitzaren programa zehaztu ondoren, guzti hauekin urteko "planning" a osatzea komenigarri da. Hau da, urteko agenda moduko bat edukitzea, non hilabetez hilabete iharduera bakoitzaren kokapena adieraziko den.

HERRIA: URTEA:	FUNTZIOA:		
	AZPIFUNTZIOA:		
	HEL BURU OROKORRA:		
AZPIFUNTZIOAREN EGOERA	HEL BURU ZEHATZAK	IHARDUERA ATALAK	
		MOTIBAZIOA	EZAGUERA ERABILPENA

HERRIA:		FUNTZIOA:				
URTEA:		AZPIFUNTZIOA:				
		IHARDUERA-ATALA:				
		HELBURU OPERATIBOAK:				
		EKINTZA PROGRAMA				EMAITZEN EBALUAKETA
BITARTEKOAK	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA	

IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA
MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA

## **9.- PROGRAMAKETA ADIBIDE BAT**

### **Lehen pausua: Gune eragilearen sorrera**

Gure herriko euskararen egoera larria ikusirik eta, herriko talde edo erakunde bakoitzak egiten duen lanaz gain, talde/erakunde guzti hauek bildu eta egoera honi buelta emango dion iharduera bateratu eta programatu baten beharraz jabeturik, EHE taldeak herriko indarrak bildu eta lan-programaketari ekiteko ardura hartu zuen.

Ardura hori hartu ondoren, honako pauso hauek eman dira:

1. E.K.B.ra jo dugu informazio eskatzeko, hau da: beste herrietako esperientziak, metodologia, planifikazio-sistema eta oinarriak, lehentasunak,...
2. Herriko talde, erakunde eta pertsona interesatuak deitu ditugu Batzarre batetara, asmoen berri emateko informazioa zabaltzeko eta, azken finean, gure herrian arlo honetan lanean ari direnen edo interesatuak egon daitezkeen guztien inplikazioa lortzeko eta denen iritzia jasotzeko.
3. Batzarraren aginduz lan-talde bat osatu da, lan-programa bat presta dezan. Esku artean duzun hau prestatu duelarik. Orain Batzarrak erabakiko du programa honekin jarraitu ala aldaketak sartu behar diren, eta zein batzorde edo lan-talde ezberdin osatu behar diren programari ekiteko.

### **Bigarren pausua: Datu orokorren bilketa**

#### *1.1. Biztanle-kopurua:*

Biztanleak ..... 18.701

#### *1.2. Euskararen ezagutza (2 urtetik gora):*

Euskaldunak ..... 8.292

Ia-euskaldunak ..... 3.679

Erdaldunak ..... 6.730



*1.3. Adin-taldeak:*

(..) - 19	.....	5.955
20 - 64	.....	11.426
65 - (..)	.....	1.715

*1.4. Produkzio-sektoreak:*

Lehen sektorea	.....	112
Industria	.....	2.713
Eraikuntza	.....	275
Zerbitzuak	.....	2.272

*1.5. Ikasle-kopurua:*

Eskolaurrea	.....	598
O.H.O.	.....	2.620
Ertaina	.....	1.411

*1.6. Euskarazko irakaskuntza:*

Eskolaurrea	.....	478
O.H.O.	.....	1.545
Ertaina	.....	303

*1.7. Merkatal establezimenduak:*

Janari / edariak	.....	6
Botika / drogadendak	.....	20
Jantzi/oinetakoak	.....	54
Altzariak/etxe-tresnak	.....	23
Automobilak	.....	10
Ekonomatoak	.....	2
Beste	.....	37

*1.8. Beste zerbitzuak:*

Anbulategia	.....	1
Kutxa/banka	.....	12

*1.9. Lantegi-kopurua:*

Lantegiak	.....	115
-----------	-------	-----

## **Hirugarren pausua: Lehentasunen zehaztapena**

Aurtengo programaketa osatzerakoan ez ditugu lehentasunen atalean agertzen diren funtzio guztiak jaso, ezingo genuke denetara iritsi eta. Indarrak neurtu behar dira eta ez bapatean dena konpondu nahi izategatik ezer ez egin.

Beraz, nolabaiteko aukeraketa egin dugu, gure ustez premiazkoenak diren eta landu ditzakegun funtzioak jaso ditugularik aurtengorako. Gure dinamika indartzen doan neurrian eta praktikak berak erakutsiko digun bidetik, datozen urteetan lantzeko utzi ditugun Lan-Mundua, Zerbitzu Publikoak, Famili Transmisioa, hala nola sor daitezkeen funtzio berriak.

Hauek dira aurtengo finkatu ditugun gure ihardueraren ardatz nagusiak:

### *1.1. Irakaskuntza*

Euskal adarrak ziurtatzea, bai OHOn hasten diren haur berrien bidez, bai OHOtik ertainetara pasatzen direnen bidez.

### *1.2. Helduen irakaskuntza*

Kolektibo jakinetan zuzenean eraginez: eskolaren bidez euskalduntzen ez direnak euskaldundu, horrela eskolaren defizita konponduz, eta gazte euskaldunak alfabetatu.

### *2.1. Administrazioa*

Normalizazio-prozesua bideratzeko ezinbestekoak diren oinarriak eta azpiegitura sortzea: Ordenantzak eta Euskara-Zerbitzua.

### *3.1. Kulturgintza*

Herriko kultur produkzio eta adierazpenetan hizkuntz normalkuntza bideratzeko oinarriak finkatu. Udal Ordenantzetan kulturgintzaren atala jaso eta kultur ekintzen publizitatea euskaldundu.

#### 4.1. Kirola/atsedena

Gazteriarengan euskararen erabilpena areagotzea eta finkatzea, ohitura bihurtuz. Horregatik, eskolaz kanpo burutzen dituzten ekintzak hurrek eskolan daramaten euskalduntze-prozesuaren errefortzua izan daitezela, bai euskararekiko estimazioaren aldetik, bai erabilpenaren aldetik. Kirola eta Musika.

Programaketa hau urtero egingo den hizkuntzaren erabileraren kale-neurketarekin osatzen dugu. Azken finean, hizkuntzaren erabilera denez beraren osasun maila adierazten diguna, neurketa honen bidez urtez urte ikusi ahal izango dugu gure lanaren emaitzak egokiak diren ala ez.

#### **Laugarren pausua: Programaketaren osaketa**

1. Irakaskuntza	1.1. OHO	1.1.1. Lehenengo aldiz eskolara joango diren haurrak	
		1.1.2. OHOtik ertaintetara doazen gaztetxoak	
	1.2. Helduen euskalduntze alfabetatzea	1.2.1. Euskalduntzea	1.2.2. Alfabetatzea
2. Administrazioa	2.1. Udalerria	2.1.1. Ordenantza	
		2.1.2. Diseino teknikoa	
3. Kulturgintza	3.1. Herri mailako kultur Ekintzak		3.1.1. Publizitatea
4. Kirola/atsedena	4.1. OHOkoko haurrentzako kirola	4.1.1. Kanpainaren diseino publizitarioa	
		4.1.2. Direktiboak	
		4.1.3. Monitorea	
	4.2. OHOkoko haurrentzako musika- -eskola kontserbatorioan	4.2.1. Irakaslea	

<p>HERRIA: <i>Andatza</i></p> <p>URTEA: <i>1991</i></p>	<p>FUNTZIOA: <i>Irakaskuntza</i></p>		1.
	<p>AZPIFUNTZIOA: <i>O.H.O.</i></p>		1.1.
	<p>HELBURU OROKORRA: <i>OHoko irakaskuntza haurren euskalduntze prozesurako tresna eraginkorra bihurtu, 8. maila amaizterakoan haur guztiak euskaraz bizitzeko gai izan daitezzen</i></p>		
<p>AZPIFUNTZIOAREN EGOERA</p>		<p>HELBURU ZEHATZAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Euskal ereduak orokortu</i></li> <li>- <i>Haurrek euskararekiko estimazioa positiboa eduki dezatela lortu</i></li> <li>- <i>Haurren artean euskararen erabilpena orokortu</i></li> </ul>	<p>IHARDUERA ATALAK</p>
		<p>MOTIBAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Haurren gurasoak</i></li> <li>- <i>Ertainetara doazen gaztetxoak</i></li> <li>- <i>Irakaslegoa</i></li> </ul>	<p>ERABILPENA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Ertainetara doazen gaztetxoak</i></li> <li>- <i>Irakaslegoa</i></li> <li>- <i>Barne funtzio-namendua</i></li> <li>- <i>Kanpo ekintzak</i></li> </ul>
		<p>EZAGUERA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Lehenengo aldiz eskolara joango diren haurrak</i></li> <li>- <i>Irakaslegoa</i></li> <li>- <i>Barne funtzio-namendua</i></li> </ul>	

HERRIA: <i>Andatza</i>		FUNTZIOA: <i>Irakaskuntza</i>				1.
URTEA: <i>1991</i>		AZPIFUNTZIOA: <i>O.H.O.</i>				1.1.
		IHARDUERA-ATALA: <i>Lehenengo aldiz eskolara joango diren haurrak</i>				1.1.1.
		HELBURU OPERATIBOAK: <i>Gurasoak moibatu datorren ikasturtean eskolaurrean hasiko diren haur guztiak euskal ereduetan matrikula dituzaten</i>				
EKINTZA PROGRAMA						
EMAITZEN EBALUAKETA						
BITARTEKOAK	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA	
Kartelak	- Prestaketa	Hilabete	Otsaila	Irakaskuntza azpibatzaordea		
Diptikoak	. Zentsotik listadoak . Alkatearen firma eskutizarako					
Eskutitzak	. Materiala eskuratu . Hizlariak lortu	Bi egun	Martxoak 6/7			
Hizlariak	- Kartelak ipini - Gutuna gurasoei diptiko eta alkatearen sinadurarekin	Egun bat	Martxoak 8			
	- Hitzaldiak	Bi egun	Martxoak 16/17			
	- Publizitatea prentsan	Kanpaina osoa				

HERRIA: <i>Andatza</i> URTEA: <i>1991</i>		FUNTZIOA: <i>Irakaskuntza</i>					1.
		AZPIFUNTZIOA: <i>O.H.O.</i>					1.1.
		IHARDUERA-ATALA: <i>OHOtik ertainetara dihoazen gaztetxoak</i>					1.1.2.
		HELBURU OPERATIBOAK: <i>8. mailako ikasleak motibatu ertainetan euskarazko adarretan matrikula daitezen</i>					
EKINTZA PROGRAMA							
		EMAITZEN EBALUAKETA					
BITARTEKOAK	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA		
Kartelak	- Prestaketa	15 egun	Maiatzak 1/15	Irakaskuntza azpibatzerdea			
Diptikoak	. Materiala eskuratu . Hizlariak lortu						
Hizlariak	- Kartelak eta diptikoak banatu - Mahainguruak	Astebete Astebete	Martxoak 15/19 Martxoak 22/26				

<p>HERRIA: <i>Andatza</i></p> <p>URTEA: <i>1991</i></p>	<p>FUNTZIOA: <i>Irakaskuntza</i></p>		1.	
	<p>AZPIFUNTZIOA: <i>Helduen euskalduntze alfabetatzea</i></p>		1.2.	
	<p>HELBURU OROKORRA: <i>Gaztegoari egokituriko programaren bidez, eskolaren defizita konpontzen satatu</i></p>			
<p>AZPIFUNTZIOAREN EGOERA</p>	<p>HELBURU ZEHATZAK</p> <p>- <i>Eskolatik (erdal ereduetatik) euskaldundu gabe ateratzen diren gazteak euskalduntzea</i></p> <p>- <i>Gazte euskaldunak alfabetatzea</i></p>	<p>IHARDUERA ATALAK</p>		
		<p>MOTIBAZIOA</p> <p>- <i>Euskalduntzea</i></p>	<p>EZAGUERA</p> <p>- <i>Euskalduntzea</i></p> <p>- <i>Alfabetatzea</i></p>	<p>ERABILPENA</p> <p>- <i>Alfabetatzea</i></p>

HERRIA: <i>Andatza</i>		FUNTZIOA: <i>Irakaskuntza</i>				1.
URTEA: <i>1991</i>		AZPIFUNTZIOA: <i>Helduen euskalduntze alfabetatzea</i>				1.2.
		IHARDUERA-ATALA: <i>Euskalduntzea</i>				1.2.1.
		HELBURU OPERATIBOAK: <i>Ikasurte honetan 8. maila amaitzen duten "A" ereduiko ikasleekin talde bat osatu</i>				
EKINTZA PROGRAMA						
BITARTEKOAK	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA	EMAITZEN EBALUAKETA
Eskutitzak	- Prestaketa - 8garren mailako ikasleen zerrendak lortu - Subentzioak lortu - Eskutitzak bidali - Txarriak - Izenak hartu - Gogorapen gutuna - Telefono deia	15 egun	Maiatzak 15/30	Helduen azpibatzordea		
		Egun bat	Ekainak 1			
		Astebete	Ekainak 5/9			
		Astebete	Ekainak 12/16			
		Egun bat	Irailak 21			
		Hiru egun	Irailak 21/24			



HERRIA: <i>Andatza</i>		FUNTZIOA: <i>Irakaskuntza</i>				1.
URTEA: <i>1991</i>		AZPIFUNTZIOA: <i>Helduen eskualdunitze alfabetatzea</i>				1.2.
		IHARDUERA-ATALA: <i>Lehenengo aldiz eskolara joango diren haurrak</i>				1.2.2.
		HELBURU OPERATIBOAK: <i>15-18 urteko gazte eskaldun ez-alfabetatuen artean alfabetatzen talde bat osatu</i>				
EKINTZA PROGRAMA						
BITARTEKOAK	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA	EMAITZEN EBALUAKETA
Kartelak	- Prestaketa	15 egun	Azaroak 15/30	Gazte azpibatzaordea		
Eskutitzak	. 15/18 urtetako gazteen zerrendak lortu					
Hizlariak	. Materiala prestatu					
	- Kartelak ipini		Abenduak 1			
	- Eskutitza bidali		Abenduak 1			
	- Debatea irratian	Astebete	Abenduak 11/15			
	- Debatea erlaimetako eskoletan		Abenduak 11/15			
	- Publizitatea prentsan	Kanpaina osoa				
	- Telefono deiak	Hiru egun	Abenduak 18/20			
	- Izenak hartu	Hiru egun	Abenduak 18/20			
	- Izena eman dutenei gogorapen deia	Bi egun	Urtarrilak 9			

<p>HERRIA: <i>Andatza</i></p> <p>URTEA: <i>1991</i></p>	<p>FUNTZIOA: <i>Administrazioa</i></p>			2.
	<p>AZPIFUNTZIOA: <i>Udaleria</i></p>			2.1.
<p>HELBURU OROKORRA: <i>Elebitasun normalizatzailean oinarritutako udal funtzionamendua lortu</i></p>				
<p>AZPIFUNTZIOAREN EGOERA</p>	<p>HELBURU ZEHATZAK</p>	<p>IHARDUERA ATALAK</p>		
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Udal Ordenantzaren onarpena</i></li> <li>- <i>Plan teknikoaren prestakuntza</i></li> <li>- <i>Plan teknikoaren garapena</i></li> </ul>	<p>MOTIBAZIOA</p>	<p>EZAGUERA</p>	<p>ERABILPENA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Ordenantza</i></li> <li>- <i>Diseino teknikoa</i></li> </ul>

HERRIA: <i>Andatza</i>		FUNTZIOA: <i>Administrazioa</i>				2.
URTEA: <i>1991</i>		AZIFUNTZIOA: <i>Udaleria</i>				2.1.
		IHARDUERA-ATALA: <i>Ordenantza</i>				2.1.1.
		HELBURU OPERATIBOAK: <i>Euskararen Udal Ordenantzaren onarpena lortu</i>				
EKINTZA PROGRAMA						
BITARTEKOAK	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA	EMAITZEN EBALUAKETA
Ordenantza	- Antzeko tipologietako beste ordenantzak eskuratu - Herriari egokituriko Ordenantza bat prestatu - Alderdiei aurkeztu - Publikoki aurkeztu - Publizitatea prentsan	Hilabete  Hilabete	Azaroa  Abendua  Urtarrila Urtarrila Kanpaina osoan	Administra. azpibatzaordea		

<p>HERRIA: <i>Andatza</i></p> <p>URTEA: <i>1991</i></p>	<p>FUNTZIOA: <i>Administrazioa</i></p>					2.
	<p>AZPIFUNTZIOA: <i>Udaleria</i></p>					2.1.
	<p>IHARDUERA-ATALA: <i>Diseño técnicoa</i></p>					2.1.2.
	<p>HELBURU OPERATIBOAK: <i>Plan teorikoaren prestaketa eta garapena bideratuko duen azpiegitura sortu, hau da, Udal Euskara zerbitzua</i></p>					
<p>EKINTZA PROGRAMA</p>						
<p>BITARTEKOAK</p> <p>Beste zerbitzu batzuen eredia</p>	<p>FASEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udal Ordenantzan jaso Zerbitzu baten beharra</li> <li>- Zerbitzuaren per-fila prestatu</li> <li>- Alderdiekin hitzegin</li> <li>- Plenora eraman</li> <li>- Plaza konbokatu</li> <li>- Oposaketak egin</li> <li>- Publizitate prentsan</li> </ul>	<p>IRAUPENA</p> <p>Astebete</p> <p>Hiru aste</p> <p>Kaupaina osoa</p>	<p>EGUTEGIA</p> <p>Abendua</p> <p>Martxoa</p> <p>Martxoa</p> <p>Apirila</p> <p>Apirila</p> <p>Maiatza</p>	<p>ARDURA</p> <p>Administra. azpibatzordea</p>	<p>AURREKONTUA</p>	<p>EMAITZEN EBALUAKETA</p>

<p>HERRIA: <i>Andatza</i></p> <p>URTEA: <i>1991</i></p>	<p>FUNTZIOA: <i>Kulturgintza</i></p>		3.	
	<p>AZPIFUNTZIOA: <i>Herri mailako kultur ekintzak</i></p>		3.1.	
	<p>HELBURU OROKORRA: <i>Euskara kultur transmisio-hizkuntza bihurtzea</i></p>			
<p>AZPIFUNTZIOAREN EGOERA</p>	<p>HELBURU ZEHATZAK</p> <p>- <i>Kultur produkzioa euskaraz edo elebitasun normalizatzailean burutzea</i></p>	<p>IHARDUERA ATALAK</p>		
		<p>MOTIBAZIOA</p>	<p>EZAGUERA</p>	<p>ERABILPENA</p> <p>- <i>Kultur ekintzen publikizitatea</i></p> <p>- <i>Kultur ekintzen iharduera</i></p>

HERRIA: <i>Andatza</i>		FUNTZIOA: <i>Kulturagintza</i>				3.
URTEA: <i>1991</i>		AZPIFUNTZIOA: <i>Herri mailako kultur ekintzak</i>				3.1.
		IHARDUERA-ATALA: <i>Publizitatea</i>				3.1.1.
		HELBURU OPERATIBOAK: <i>Euskara zokoratuta ala erdara hutsez dagoen kartel, iragarki edo bestelako publizitatearik ez onartzea</i>				
EKINTZA PROGRAMA						
BITARTEKOAK	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA	EMAITZEN EBALUAKETA
Udal Ordenantza	- Udal Ordenantzan kultur produktiorako baldintzak jaso		Abendua	Kultura azpibatzordea		
Eskutitza	- Eskutitz bat prestatu arauekin - Kultur ekintza bakoitzaren aurretik arduradunarekin kontaktatu arauen berri emateko - Beteizten ez duena ondoren salatu		Urtarrila			

<p>HERRIA: <i>Andatza</i></p> <p>URTEA: <i>1991</i></p>	<p>FUNTZIOA: <i>Kirola eta atsedena</i></p>		4.	
	<p>AZPIFUNTZIOA: <i>OHOKO haurrentzako kirola</i></p>		4.1.	
	<p>HELBURU OROKORRA: <i>Eskolaz kanpo burutzen dituzten ekintzak haurrak eskolan daramaten euskalduntze prozesuaren errefortzua izan daitezela. Bai euskararekiko estimazioaren aldetik, bai erabilpenaren aldetik.</i></p>			
<p>AZPIFUNTZIOAREN EGOERA</p>	<p>HELBURU ZEHATZAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Haurrak entrenatzen ari diren monitoreak euskaldundu</i></li> <li>- <i>Entrenamenduak euskaraz burutu</i></li> <li>- <i>Kirol elkarteen funtzionamendua euskaldundu</i></li> </ul>	<p>IHARDUERA ATALAK</p>		
		<p>MOTIBAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Haurrak</i></li> <li>- <i>Direktibook</i></li> <li>- <i>Monitoreak</i></li> </ul>	<p>EZAGUERA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Monitoreak</i></li> </ul>	<p>ERABILPENA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Haurrak</i></li> <li>- <i>Monitoreak</i></li> </ul>

HERRIA: <i>Andatza</i>		FUNTZIOA: <i>Aisialdia</i>				4.
URTEA: <i>1991</i>		AZIFUNTZIOA: <i>OHOKO haurrentzako kirola</i>				4.1.
		IHARDUERA-ATALA: <i>Haurrak</i>				4.1.1.
		HELBURU OPERATIBOAK: <i>Haurrei adieraztea euskara baliagarria dela kirola bezalako gauza atseginetan ere erabiltzeko</i>				
EKINTZA PROGRAMA						
BITARTEKOAK	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA	EMAITZEN EBALUAKETA
Kartelak	- Kartelak eta pegatak diseinatu - Udalaren partehartzea lortu	1.5 egun	Urriak 1/15	Aisialdia azpibatzen		
Pegatak	- Kirol elkarteekin elkarriketatu eta kanpaina finkatu	Hilabete	Urria			
Kirolariak	- Aurkezpen publikoa	Hilabete	Urria			
	- Pegata banaketa	Egun bat	Azaroak 3			
	- Kirolarien bisita	Astebete	Azaroak 6/10			
	- Liga berezia	Bi aste	Azaroak 6/10			
		Lau hilabete	Abend, urtarr. otsa., martxoa			



HERRIA: <i>Andatza</i>		FUNTZIOA: <i>Aisialdia</i>				4.
URTEA: <i>1991</i>		AZIFUNTZIOA: <i>OHOKO haurrentzako kirola</i>				4.1.
		IHARDUERA-ATALA: <i>Direktiboak</i>				4.1.2.
		HELBURU OPERATIBOAK: <i>Kirola euskalduntzearen aldeko direktiboen jarraera aktiboa lortu</i>				
EKINTZA PROGRAMA						
BITARTEKOAK	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA	EMAITZEN EBALUAKETA
	- Kanpainaren ardatzak diseinatu	15 egun	Urriak 1/15	Aisialdia azpibatzerdea		
	- Udalaren partehartzea lortu	Hilabete	Urria			
	- Direktiboekin elkarriketatu eta kanpaina finkatu	Hilabete	Urria			
	- Kanpainari ekin	Azaroan				

HERRIA: <i>Andatza</i>		FUNTZIOA: <i>Aisialdia</i>				4.
URTEA: <i>1991</i>		AZPIFUNTZIOA: <i>OHOKO haurrentzako kirola</i>				4.1.
		IHARDUERA-ATALA: <i>Monitoreak</i>				4.1.3.
		HELBURU OPERATIBOAK: <i>Euskaldun diren monitoreak entrenamenduak euskaraz zuzentzen hasi daitezela. Euskaldun ez direnak hasi daitezela euskara ikasten</i>				
EKINTZA PROGRAMA						
BITARTEKOAK	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA	EMAITZEN EBALUAKETA
Terminologia ikastaro bereziak euskaldunentzat Kanpainaren publizitatea	- Kanpainaren ardatzak diseinatu	15 egun	Urriak 1/15	Aisialdia azpibatzerdea		
	- Udalaren partehartzea lortu	Hilabete	Urria			
	- Monitoreekin elkarriketatu eta kanpaina finkatu	Hilabete	Urria			
	- Euskaldunentzako ikastaro bereziak burutu		Azaroa			
	- Erdaldunak euskarazko klaseetan matrikulatu		Azaroa			
	- Ahal dutenak entrenamenduak euskaraz burutzen hasi					

<p>HERRIA: <i>Andatza</i></p> <p>URTEA: <i>1991</i></p>	<p>FUNTZIOA: <i>Aisialdia</i></p>		4.
	<p>AZPIFUNTZIOA: <i>OHOKO</i> <i>haurrentzako musika-eskola kontserbatorioan</i></p>		4.2.
<p>HELBURU OROKORRA: <i>Eskolaz kanpo burutzen dituzten ekintzak haurrak eskolan daramaten euskalduntze prozesuaren errefortzua izan daitezela.</i>  <i>Bai euskararekiko estimazioaren aldetik, bai erabilpenaren aldetik</i></p>			
<p>AZPIFUNTZIOAREN EGOERA</p>	<p>HELBURU ZEHATZAK</p>	<p>IHARDUERA ATALAK</p>	
	<p>- <i>Musika eskolak euskaraz burutzea</i></p>	<p>MOTIBAZIOA</p>	<p>ERABILPENA</p>
		<p>EZAGUERA</p>	<p>- <i>Irakaslea</i></p>

HERRIA: <i>Andatza</i>		FUNTZIOA: <i>Aisialdia</i>				4.
URTEA: <i>1991</i>		AZPIFUNTZIOA: <i>OHoko haurrentzako musika-eskola kontserbatorioan</i>				4.2.
		IHARDUERA-ATALA: <i>Irakaslea</i>				4.2.1.
		HELBURU OPERATIBOAK: <i>Ikasturte honen amaierako dagoen irakaslea gai izan dadila bere eskolak euskaraz emateko</i>				
EKINTZA PROGRAMA						
BITARTEKOAK	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA	EMAITZEN EBALUAKETA
Ordezko irakaslea	- Irakaslearekin hitzegin - Irakaslea ikastaro intentsibo batera bidali alfabetazera eta bitartean ordezkoko beste irakasle bat hartzeko eskaria aurkeztu udalean - Ordezkoa kontratatu - Irakaslea alfabetazera bidali		Urriaren hasieran	Aisialdia azpibatzaordea		
			Urriaren amaieran			

**VI.**  
**ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAZ**



## **1.- ZARAUTZKO IHARDUNALDIAK ETA ZENBAIT ONDORIO**

Aurtengo (1991ko) Urtarrilaren 26 eta 27an herri-mailako antolakuntza duten hainbat erakunde bildu zuen Euskal Kulturaren Batzarreak Zarautzen. Hauei nazio-mailako antolakuntza duten AEK eta EHEren ordezkariak gehitu behar zaio.

Helburua, aurretik igorritako gidoiaren inguruko debatea. Hau da: «Talde hauen funtzioak: Batasuna eta planifikazioak», «Antolakuntza-motak» eta «Planifikazioa» izeneko gaiez hartu-emanak izateko gunea zabaltzea.

Bertan elkartutakoen eritziz helburua bete-betean lortu zen. Hala ere, aldez aurretik azpimarratu legez, hura aurrera jo behar duen prozesu baten hasiera baino ez zen izan. Hau da, Zarautzen bildutakook, besteak beste, elkarlanean iharduteko beharra eta premia ikusi genuen. Orduan hasitako 'hartu' eta 'eman' ariketari beste gunea eta une batzuk zabaldu behar dizkiogula, alegia.

Dena den, Monte Albertiako ormen artean azalduko gogo, asmoa eta ideien artean, amaitzerakoan bederatzi puntu nagusi azpimarratu genuen. Horiek, hain zuzen ere, dira, hemen azaltzen ditugunak. Eta ez hauei itsu-mustuan jarraitzeko, lekuan lekuko behar eta posibilitateei begira lantzeko baizik.

Esandako ondorioak agertu baino lehen, Zarautzen jorratutako gai guztiek konpaktazioa bilatzea zeukatela helburutzat esan behar. Edo hobe esanda, hori bilatzeko tresnak zorroztea.

Jo dezagun, bada, ondorioak azaltzera.

***Lehenik**, normalkuntzan ari diren erakunde eta talde ezberdinen eginkizunak ondo definitzea garrantzitsutzat jotzen da. Zentzu honetan, EHEk nazio-mailako erakunde gisa bere eginkizun zehatzak dauzka, herri-mailako elkarteek dauzkatenetatik desberdintzen*

*direnak eta plano diferentean daudenak. Honek ez du kentzen Herri bakoitzeko iharduera konkretuan erabat konbergenteak izan ez daitezkeenik.*

Hala bada, ez du zentzurik helburu berberarekin ari diren erakundeak eginkizun konkretu batzuetan, hots, funtzio edo eginkizun berbera dutenetan elkarren aurrean ibiltzeak, zein baino zein, alegia.

Funtzioen errepikatze honek lanak alferrik bikoiztea ekarriko du eta askotan, herri batzuetan gertatu denez, elkarrenganako mesfidantza. Horretaz ari garelarik, kontzientzia pertsonala daukagunok joku antzu honetan aritzen bagara, zail izango da espazio sinboliko horretara jende berria ekartzea.

Aplikazio-esparruak zehazterakoan eta programazioa operatiboa eta eraginkorra izan dadin, garbi definitu behar dugu, alde batetik, egitaraua zein eremu territorialetan gauzatuko den eta, bestalde, eremu territorial horren barruan zein diren ukituko diren iharduera edota sektore sozialak, eta horixe da zehaztu behar den lehen gauza.

***Bigarrenik, iraunkortasuna eta eraginkortasunari begira, 'kanpanitis' eta 'ekintzategi' izateari uzteko, antolakuntza mota-egokitza hartzen da elkarrearena, honek lor dezakeen azpiegituretatik.***

*Honek posibilitatuko du sektore ezberdinen arteko koordinaziorako erreferentzigune sendoa lortzea.*

Euskararen normalkuntzaren alde jotzeak gogoak piztu ditu sarritan. Orduan, 'zer egin' horri mota askotako kanpainak sortu zaizkio eta kanpaina horiei beste batzuk, inolako logikarik gabeko 'kanpanitis' izenekoan sartuz. Honen arrazoia, askotan, normalizazioa bilatzen ari den nukleoaren izakeran aurkitu ahal dugu. Hau da, herri batzuetan sortutako dinamikak parametro hauei begira daude: Hainbat lagun bildu, ideia xebrereren bat mahairatu eta besterik ezean horri heldu. Hau da, zergatik, zertarako eta zelan galdetu eta erantzun barik. Zezenari adarretatik heldu behar bazaio planifikazioa ziurtatzen duten minimo batzuk bilatu behar ditugu.



Ikuspegi honetatik Elkarteak onestea iruditu zitzaigun egokiena. Hala ere, eta hau **hirugarren** ondorioa litzateke, *aurrekoan esandakoak ez du kentzen bestelako egituraketa-motak aurrera eramatea, lekuan lekuko ezaugarriak direla medio.*

Hauek horrela, berriro ekarri nahi genuke gogora han behin eta berriz esandakoa, hots, Zarautzen ez dira formula magikoak azaldu, leku bakoitzean aztertu eta moldatu behar diren ondorioak baizik.

Beraz, herri bakoitzeko beharrak ezberdinak izanik ezberdinak dira, hala beharrez, beronek eskaintzen dituen posibilitateak. Ezberdina da Lizartza batek eskatzen duen dinamika, baita horri erantzun behar dion azpiegitura ere, eta Sestao batek behar dituenak. Ondoren, ez gaitezen orain danok 'ametsetakoa' elkarte hura ezinbestean bilatu nahian ibili eta, berriz, azter ditzagun normalkuntzaren bidean dauzkagun bitartekoak nola erabili.

**Laugarrenari** dagokionez, *antolaketa-mota hauek ideologia eta sektore ezberdinetako euskaltzaleen topagune izan behar dute.*

Joxe Maria Sanchez Carrionek BAT-Soziolinguistika Aldizkariaren 2. atalean honela dio:

«Iruñean erdara hasi zenean oso hizkuntza mugatua eta gutxiengo batena zen. Zertan dago desberdintasuna? Konpaktazioan. Iruñeko erdaldunak konpaktatu ziren bere bizitza eta herria erderaz bideratzeko». (87. or.)

Txepetxek markatzen duen konpaktazio horri begira jarri behar dugu. Hori bai, konpaktazio hau ez da bakarrik planteamendu ideologikoetan oinarritu behar.



Ostera, herri-mailako sektore ezberdinetako jendea geureganatzen saiatu behar dugu. Hauek ez dute zertan izan behar sektore horien ordezkari baina, dena den, sektore ezberdinetan eragiteko funtsezkoak izan daitezke.

Izan ere, sektore ezberdinetako jendea lortuz gero Euskararen Taldea eta sektore hauen arteko erlazioa naturalagoa suerta baitaiteke. Hau da, Euskararen Taldean planifikatutakoak bere eragile naturalak izango ditu esandako arloan eta ez, sarritan


suertatzen den lez, Euskararen Taldetik etorritako «parakaidistak», sektore horren iharduera naturalarentzat arrotzak izan daitezkeenak, alegia.

Horregatik, eta gune eragilearen antolaketan, bi osaketa posible hauen artean:

**1. Osaketa:**



**2 Osaketa:**



Bigarren osaketa egokiagoa litzateke, zeren eta talde eragilea pertsona solteetaz gain, sektore ezberdinetako pertsonetaz ere osaturik bait dago; lehen osaketan gertatzen ez dena.

**Bostgarrenik:** Zabaltasunak ez du inolaz ere esan nahi euskararen normalkuntzarako behar diren minimoen azpitik jokatu behar denik.

Argi dago, euskararen normalkuntzarako bidean aurrera jo behar dugu. Beraz, hizkuntzak guregan identitate-funtzioa bereganatu duenean, hots, kontzientzia pertsonala lortuta dagoenean aurrera jo behar dugu. Zarautzen bildutakook herri-mailako zeregina izanik ezin dugu bidaia osoa zabaltasuna bilatzen eman, euskarak minimo batzuk bait dauzka eta horiei eusteko beharra agerian bait dago.

Beraz, zabaltasuna lortzearren kristorenak egingo ditugu, baina ez dezagun jo atzeko orma aurrera joan behar denean.

***Seigarrenik.*** *Antolaketa hauen helburua, normalkuntza izanik, kultur iharduera bideratzeaz gain normalkuntza-prozesuak eskatzen dituen beste atalez ere arduratu beharko lukete.*

Badirudi, esperientziak horrela erakutsi bait du, kultur iharduera bultzatzea hibridoagoa dela, eta, ondorioz, honen inguruan elkartzea errazagoa dela. Hala ere, euskararen normalkuntzan eragingo badugu ezin gara horretan gelditu, hori litzateke-eta esandako normalkuntzak dituen minimoen azpitik ibiltzea.

***Zazpigarrenik.*** *Aipaturiko normalkuntza hau lortzeko plangintza dugu tresna metodologikoa, herri bakoitzaren ezaugarriei egokiturik landu beharrekoa, beti ere kopiatze errazean erori gabe.*

Dena den, ez dugu beste alderaino jo behar, hots, herri batean egindako esperientzia erabilgarria izan daiteke beste batean. Beraz, kopiatu behar denean kopiatzeari beldurrik ez.

Hala ere, ez da kopiatze-lana egokiena izaten. Horretarako hain zuzen ere, liburu honetan tipologi ezberdinetan oinarrituriko hainbat lehentasun azaltzen da eta horiei, herriaren egoera aztertu eta ezagutzetik aterako direnei begira jarri behar dugu lanean. Beti ere, taldeak dituen bitartekoak eta indarak neurtuz.

***Zortzigarrenak dio:*** *Eginkizunak hain ugari eta ezberdinak izanik, era ezberdinetako parte hartzeak kontutan hartu behar dira.*

Euskararen aldeko lan honetan ez dago inor soberan, ez behintzat euskararen alde egiteaz ari garenean. Horrexegatik, herri bakoitzean onetsiko den antolakuntza-mota horren inguruan zereginak ezberdinak eta ugariak izan daitezkeela esan dezakegu. Beraz,

euskaldun pasibo hori aktibo bihurtu nahi badugu, beronen nahiak kontutan hartu behar ditugu eta, horrela, beti aurrera begira, normalkuntzarako bidean aporta dezakeen lana egokitu. Batzuk artikuluak idatz ditzakete, beste batzuek kartelak jarri, besteek kuota ordaindu... eta horrela prozesuak behar dituen elementu guztiak bete arte.

Azkenik, bukatzeko, Aholkularitza teknikoaren beharra ikusi zen. Planifikazioa, tipologia, konpaktazioa eta horrelako hitz hauen inguruan bideratzen duenik ere behar da. Horrexegatik, *azken ondorioa* izanik, *Euskal Kulturaren Batzarrea, sortu diren zalantza eta beharrei erantzuteko irtenbidea aztertu eta bilatzen saiatuko da, Aholkularitza-Zerbitzua bultzatuz.*

Hauek dira, bada, Zarautzen bildutakoen artean eginkizun eta antolaketaz ateratako ondorioak, gure eguneroko ihardueran sortzen diren arazo guztiak argitzen ez badituzte ere, lagungarriak izan daitezkeenak. Debateari ekin baino ez diogu egin. Egongo dira beste topaketa eta elkargune batzuk, zeren ondoriorik garrantzitsuena elkarren arteko komunikazioa eta koordinazioaren beharra bait da.

